



## ETXEKO TXIKI BERRIAK

UMEAK ADOPTATZEAREN KONTUAK

**AZPEITIKO**

6 harategi haueten bakarrik

**EUSKAL OKELA**



**"Bertan jaio eta hazitako ganadua.  
KALITATEKO okela nahi baduzu,  
GUREAN aurkituko duzu!"**

**Beloki**  
Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62  
AZKOITIA  
Jose Artetxe, 21 Tel.: 943 151392  
AZPEITIA



*bertako okela*

HARZUBIA, 26 D  
TEL. 81 60 25  
ETXEKOA 15 00 03  
AZPEITIA



Harategi  
Especializatu

Arana Kalea, 14  
Urrut.: 943 81 1015



Harategi eta Zerritegia  
Euskal Herriko Haragirik Onenak

San Inazio Kaleko 12an  
Urrut. 943 81 14 98



HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA  
ETXEKO URDAIKIA

FORU HIBILBIDEA, 4  
TFNOA. 81 15 94

AZPEITIA



KALITATEZKO  
HARAGIA

BUSTINZURIKO ERREBAL  
TFONOA.: 943 811671

**Burutik beherakoa** ▶ Jose Luis Otamendi

# Maite dut

**N**on sortu ez zegoen geure esku. Non bizi, berriz, batzuk aukeratu egiten dugu, no-labait. Azpeitiarra naiz eta ez nago harro. Maite dut nire herria, bera bakarrik ez maite izateko beste. Maite dut, beste edozein herri-  
ren jiteko den heinean. Badakit, hemengo gara, ezaguna dugu jendea, kaleak... Senti-  
menduak, esperientziak zainetan txertatu eta estu lotzen du horrek bat. Azpeitiartasunak ez dakar zeruko igurtziaz edertuta egotea, hala ere; kontrakoa ere ez. Ez dakit gaitza neure

begiarena ez den. Sarri antzean, ikusten ditu-  
dan hedabideetan Azpeitiaren gehiegizko betekada dagoen inpresioa daukat. Zerikusia izango du herri eta eskualdeko komunikabide-  
en zabaltzeak. Mesede handia datorkio eus-  
karari hortik, baina Burgosko asto baten arrantza albiste bihurtzen bada norbaiti San Inazioaren martxa gogora ekarri diolako, badu-  
gu zerekin kezkatu. Nire irudipena areagotu egiten dit euskarazko munduak: prentsa, irra-  
tia, kultura, kirola... Hori azpeitiar pila! Hain

onak ote gara denean? Ez harritu gero, umeak handitan azpeitiar izan nahi dutela esaten has-  
ten badira bazterretan...

Bailara hau euskaldunen fabrika da. Hori bada euskara eta Euskal Herria zein flako dagoen erakusgarri. Eta azpeitiar izate goitik behera begiratzeko horrek, badu konple-  
xutik.. Nik hartzen diot halako nano-nazio-  
nalismo tankera. Azken aurreko kukurruku harroa. Baina lasai, ez da azpeitiarron akatsa soilik.

## uztarria ▶

### UZTARRIAREN DATUAK ▶

**Argitaratzailea.** Uztarrria Azpeitiko Kultur Koordinakundea

**Egoitza.** Julian Elorza Hiribidea 4 behe, eskubia (Azpeitia, 20730)

**Telefono eta fax zenbakia.**  
943 15 03 58

**Posta elektronikoa.**

uztarria@topagunea.com

**Posta kutxa.** 227, Azpeitia

**Lege gordailua.** SS-860/2000

**Zenbakia.** 71.a (2006ko martxoa)

**Urtea.** VIII.a

**Maiztasuna.** Hilabetekaria

**Web orria.** www.uztarria.com

**Diseinua.** EREGI

**Publizitatea.**

▶ 699 64 66 01

▶ uztarria@uztarria.com

**Bazkidetza-Harpidetza.** 15 03 58

**Tirada.** 2.500 ale

**Inprimategia.** Lizarra Grafikak

**Azaleko argazkia.** Ihintza Agirretxe

**Oharra.** Uztarriak ez du bere gain

hartzten aldizkarian adierazitako esanen

eta iritzien erantzukizunik



### [u-iritzia]

**08 Inkesta.** Herrian zerbait aldatuko al luketen edo gustura dauden herria den bezala izateaz galdetu dugu herritarren artean.


**10 Bat hirutara.** Hiru gazteak ehizaz eta hegazti gripeaz ariko dira oraingoan.

### [u-mamia]

**12 Adimen urrikoa.** Santa Larizgoitiaren eta haren adimen urriko seme Jose Ignacioren istorioa.

**14 Klik.** Txolartekoak film bat grabatu dute. Hona grabaketa argazkitan.

**18 Medikuntza.** Karmelo Loinaz azpeitiarra, Madrilen mediku.



### [u-jakiteko]

**26 Karnabalak.** Noiz izango dira karnabalak 2007an? 2015ean?... Zergatik aldatzen dira dataz?

### [u-euskara]

**36 Enpresak.** Herriko enpresen webguneetan euskarak ez du presentzia handirik. Ia denetan, besteen pare da edo gutxiago.



UZTARRIA AZPEITIKO HERRI  
ALDIZKARIAREN LAGUNTZAILEAK ▶  
(erakunde publikoak)



AZPEITIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA



## Enbido ▶



Koldo Aldalur

# Merezi du

**B**ehin ere pentsatu al duzue egoera baten aurrean hartzen ditugun jarrerak eta erabakiak, besteak beste, urteetan pilatutako bizipenen ondorio logikoak besterik ez direla?

Jaiotzerako susmatutako epeltasun bustia, jaiotzean isuritako lehen malkoa, amaren usain goxoa, umetako kontraesanak, nerabearoko barne borrorak, maitasuna, gorrotoa, lagunak eta etsaiak, familia, eskola, elizaren eragina, esango dutenaren beldurra, erantzun zehatzik gabeko galdera itogarririk... Eta beste hamaika bizipen heltzean sartu eta, horra hor, gu geu, egoera bat aurrean.

Askoren ustez, egoera politiko interesgarrian gaude, nahiz eta hitzak ez duen, momentuz, atzetik gustura ikusiko genukeen ondorioak. Momentuz.

Irratia jarri, telebista piztu, lagunekin bildu, egunkariak zabaldu eta beste konturik ez. Nahia, irtenbideren baten nahia.

Eta horretan hara nola etorri zaidan burura komunikabideek gudan izan dezaketen eragina norberaren jarrera erabakitzerakoan hain garrantzitsua den une batean. Ofizioari afizioa, itxuraz.

Eskuarteetan ditut Sofres A.M. enpresak ateratako azken urteari dagozkion telebista audientziak. Ondo zehaztuak portzierto, publizistak zehatz jakin behar duelako bere produktua nori, noiz eta nolako kopuruan iristen zaion. Honela dio iazkoari dagokionak. Euskadiri buruz ari da soilik, arren kontutan izan: ETB1 %5. ETB2 %18,4. TV1%15,9. TV 2 % 5,6. A3 %17,6. T5 %27. Gai nontzekoak (Cuatro, lokalak...) % 10 pasatxo.

Ondorio bezala pare bat kontu. Bat, euskaraz entzuten dugun telebista-informazioaren ehuneko osobaxua dela eta, bi, azken hiru urtetan gora egin dutela atzerriko kateek. Bale.

Egunkarietara joko bagenu, telebisten atalean ikusitakoa mantendu edo, agian, handitu egingo litzateke. Euskadin gehien irakurtzen diren egun-

kariak ABC ospetsuaren anaia probintzianoak besterik ez dira. Kolore, eskela, herrietako kronika eta herrialdeko futbol taldeari eginiko segimenduak bere zentzua du: egunero-egunero naftalinaz betetako Madrilgo bulegoan sorturiko ideiak gure barruan iltzekatzea. Zinez, lortzen dute! Irratietako zenbakiak ez pentsa askoz hobeak direnik egoerari irtenbide justu bat eman nahi diogunontzat.

▶ **ARERIOAK.** Eta hemen kalte egiten digutenak eta kalterik egiterik ez dutenak bereizi beharra dago. Jimenez Losantos, Herrera, Mila... zaunka handiegia egiten duten *zakurrak* dira. Lurra lehorra den herrialdean guru orojakileak bailiren entzuten eta irakurtzen dituzte baina hemen hain da handia darien kiratsa, negargureaz gain eragin txikia dutela gudan. Arriskutsuak besteak dira.

Gaur neuk entzun edo irakurritakoak, eta oraindik bazkalostea besterik ez da: "Zortzi metroko olatuak Zumaian, Espainian azken hamar urtetan ikusi diren handienetakoak", "San Sebastian eta Madril inoiz baino gertuago izango dira Talgoari esker...", "kutsatutako hegaztiak Espainiara udaberriantor daitezke...", "Osatarrak, David Etxeberrria eta abar Espainiako txirindularirik hoberen artean dira aurten Saizen aginduetara". Eguraldiaren mapa, argazkietako manipulazioa, tonoa... Gure borondatea deusezterainoko mailukadak.

Hauxe da eta ez beste bat dugun komunikabideen mapa, ulertu beharrekoa hurrengo hilabeteetan biziko dugunak ulertzeko, nondik saiatuko diren pentsatzeko. Horien eskuetan uzten badugu, gure jarrera derrigorrez duina izan behar duen irtenbidearen atarian ez da gauza onik izango.

Iruditzen zait Azeptian jendeak pentsatzen duela errealitate hori ez dela berea. Euskadi Irratia entzun, *Goenkale* ikusi, euskaraz hitz egin eta bapo bizi. Politikoentzat politikokeriak eta botoa eman nuenez, utz nazatela bakean bizitzen. Nire irudipena besterik ez da. Askoren helburua zen seme-alabei bake justua uztea. Orain da garaia norberak barruan duena plazaratzeko. Umetan jasotako laztenei kasu handiagoa eginez eta, akaso, hainbat ohitura aldatuz. Merezi duelakoan nago.

## HILEKO ESALDIA ▶

Gutxienez, arerioak non bazkatzen duen jakin dezagun

agirre oparidenda - Erdi kale 1 - 20730 Azpeitia - Tel: 943 81 13 25

azkue jantzi denda - Erdi kale 7 - 20730 Azpeitia - Tel: 943 81 15 06

ederti altzariak - Enparan kalea 10 - 20730 Azpeitia - Tel: 943 81 16 74

gemma kinkilidenda - Santiago kalea 10 - 20730 Azpeitia - Tel: 943 15 18 65

haurtxoa haurren moda - Perez Arregi 9 - 20730 Azpeitia - Tel: 943 81 69 79

iturralde iturgintza - Eliz kale 12 - 20730 Azpeitia - Tel: 943 81 12 12

furundarena oinetakoak - Erdi kale 9 - 20730 Azpeitia - Tel: 943 81 11 43

gotain lurrindegia - Erdi kale 3 - 20730 Azpeitia - Tel: 943 81 43 58

jone eta maikar estetika zentrua - Julian Florza 5 - 20730 Azpeitia - Tel: 943 81 38 98

jostaldi kirolak - Erdi kale 15 - 20730 Azpeitia - Tel: 943 81 46 23

Mahtxoak 21 Udaberria



Alde Zaharra Elkartea - Erdi Kale 18 - Tel 943 81 08 95



Olatz Prat

# Aireportukoak

**Ä**ireportu handi batean hegaldiaren zain eta bakarrik ordu asko pasatu behar izan dut noizbait eta ez naiz aspertu. Askorako eman dezakete zazpi orduk horrelako leku batean. Gorbatahun gizonak alde batetik bestera, kartoi pusketan izen ezezagunak, ilusioa aurpegiaren daramaten motxiladunak, negarrez gelditu den bihotz hautsi hori... Irudimena mar-txan jartzen zait horrelakoetan. Jendea begiratu eta haien historia pertsonala eraikitzen jartzen naiz, begiradak, janzkerak eta jarrerak begiratu eta pistak batzen.

Adibidez, garbiketan diharduen emakume beltzarana hegoamerikarra da, 40 urte, aurpegi serioa eta zaharkitua. Nekatua dago. Lan hobia nahi luke baina horixe da aurkitu duen onena. Batera eta bestera dabil, zakarrontziak husten, erre-tzaileen gelako hautsontziak garbitzen, sandwich plastikoak lurretik jasotzen... hitzik egin gabe, inori begiratu gabe.

Beste adibide bat. Nire aurrean eserita dauden neska-mutilak ezkonberriak dira, seguru. Irribarretsu daude, eskutik askatu ere egin gabe. Neskak eraztunari begiratzen dio, gero mutilari, gero berriz ere eraztunari, eta hasperen bat. Karibe aldera joango dira ziurrenik, neskak hamaka batean dagoela antzezten du, edari fresko bat edaten imajinatzen du bere burua, eguzki epeletan. Mutilak irribarre urduri bat egiten dio, zerura begira, goiko hortzekin beheko ezpainari eutsiz.

Irudimenik behar ez denean. Baina batzuetan ez dago irudimena landu beharrik. Batzuetan, toka daiteke pertsona horietako batek kontatzea bere istorioa. Idaztera nioan artikulua gaiaz hitz egin nionean, gertatutakoa kontatu zidan lagun batek.

▶ **ISTORIO POLITAK.** Lagun hori eta bere anaia New Yorkeko aireportuan zeuden, aspertu samar, ordu batzuk zeramatzen jada han. Berriketaren zeudela, bizkarra emanda zegoen gizon batek nongoak ziren galdetu zion gaztekeraz, bi lagun horiek ere gaztekeraz hitz egiten entzutean. Azen-tuagatik kubatarra, aurpegiko zimurrengatik

75 bat urte. Horrela, hitz egiten hasi ziren, zerk eraman zuen bakoitza han egotera eta abar. Elkarrizketak luze jo zuten.

Dirudienez, gure pertsonaia erbestera bat zen. Castroren iraultzan parte hartutakoa, 1953ko uztailearen 26 Monkadako kuartelari eginiko erasoan egona, Batistaren aurkako altxamenduaren hasiera izan zen eraso hartan. Baina, handik urte batzuetara, 1961ean –eta hemen dago koska–, Kotxinosko Badiako erasoan estatubatuarren aldean ere parte hartu zuela esan zien, *“Playa Girón, sí señores, allí estaba yo”*. Castrok hura atxilotzea lortu zuela eta CIArekin kolaboratzeagatik kartzelara bidali. Nire lagunak haiekin kolaboratzearena egia al zen galdetu zion, baina gizonak irribarre baten atzean egia ezkutatu nahian ezetz zioen buruarekin.

▶ **JAKIN-MINA.** Lagunek batekoa zuten mahun, ordea, eta historia zirraragarri hari buruz gehiago jakiteko aitzakia ezinhobea. Mutilek esplikatu zioten euren herenaitona, Juan Arechabala, Kuban urte askoan egondakoa zela, Ron Arechabala enpresaren sortzailea zela –Castroren erregimenak nazionalizatutakoan Havana Club bihurtu zena– eta Castroren garaian jasotzen zituzten etengabeko mehatxuak eta erasoak zirela eta, ondorengoek Kubatik alde egin behar izan zutela.

Ezezaguna lagun egiten denean. Agureak ulertu zuen 16-17 urteko mutiko haiek jakingura zutela, Kuba eurentzat zerbait berezia zelako. Ez zion inolaz ere kalterik egingo haiei egia esatea, *“al fin y al cabo ya qué más da”*, zioen.

Esan zien baietz, CIArekin jardun zuela eta damutzen zela, neurri batean behintzat, Fidelen erregimena kubatarrentzat gero eta gogorragoa izan baitzen orduetik aurrera. Urte pilo hura kartzelan pasatzeak Castrorenganako gaitzespena handitzea besterik ez zion ekarri. Horrek emandako barne indarrari esker, azkenean kartzelatik alde egitea lortu omen zuen gizonak eta Floridara joan omen zen bizitzera.

Batek baino gehiagok esango duzue ezezagunekin hitz egitea arriskutsua dela, eta egia da kasu askotan horrela gertatzen dela. Baina zenbat ote dira aireportuetan, autobus geltokietan edo okindegian bertan galdu ditugun istorio zirraragarriak?

## HILEKO ESALDIA ▶

Istoriorik gabe, zertan gelditzen da historia?

kilikolor kopistegia - Iberotarren pl 7 - 20730 Azeitia - Tel: 943 08 04 79

kimetz ileapaindegia - Julian Florea 5 - 20730 Azeitia - Tel: 943 15 01 61

kimu bat jardineritza - Urrestilla bidea - 20730 Azeitia - Tel: 943 15 00 85

lidia jantzi denda - Erdi kale 17 - 20730 Azeitia - Tel: 943 81 26 64

martina isasti jantzi denda - Julian Florea 5 - 20730 Azeitia - Tel: 943 81 26 68

motx ileapaindegia - Eliz kale 18 - 20730 Azeitia - Tel: 943 81 07 54

mugi kirolak - Enparan kalea 8 - 20730 Azeitia - Tel: 943 15 10 04

natura belardenda - Eliz kale 5 - 20730 Azeitia - Tel: 943 15 09 31

torrealday aholkularitza - Iberotarren pl 7 - 20730 Azeitia - Tel: 943 15 05 09

urrestilla gizon jantziak - Erdi kale 6 - 20730 Azeitia - Tel: 943 81 18 69

Martxoak 21 Udalberria



Alde Zaharra - Egin Zaituz Bazkide - Tel 943 81 08 95

## Trauskil ▶ Jon Berdejo



## Galdetuz ▶

**Aukera izanez gero, zer aldatuko zenuke herrian?**

**ALBERTO LARREA ▶**  
azpeitiarra



“Ni oso gustura bizi naiz Azpeitian eta, egia esan, ez nuke ezer aldatuko. Azpeitiarra naiz eta gustura nago. Enpresak pixka bat herritik kanporago aterako nituzke, hori bai”.

**NATALIA RIOS ▶**  
azpeitiarra



“Umeentzako estalitako parke bat jarriko nuke, ez baitago horrelakorik.

Taxistek ere pena pixka bat ematen didate, ez daudelako egoera onean lanean”.

**JOSE ALBISUA ▶**  
azpeitiarra



“Ni orain 50 urtetik bizi naiz hemen eta oso gustura nago herriarekin. Dena ondo dagoela iruditzen zait eta ez nuke ezer aldatuko; dena bere horretan dago”.

**XABIER LARRAÑAGA ▶**  
azkoitiarra



“Hemen Azkoitian bezala kotxeekin arazo handia dago eta nik hori aldatuko nuke.

Ez nieke kotxei herrian horrenbeste ibiltzen utziko”.

## Hau ▶

# Xabier Altunari



Jokin Uranga

**U**tzarriaren 69. zenbakian idatzi nuenak ez dio nonbait graziaz egin Xabier Altunari, hala eman zuen jakitera gutxienik. Inoiz ez didate kezkarik eman balizko kritikek; hala ere, gauzak argitzea gustatzen zait.

1. Diozunez, bi azpeitiar gazte Espainiako Audiencia Nazionalera eraman izanaren ondorio larria eduki zuen ika-mika, batek udaltzaina muturrean jo zuelako hasi zen. Ez dakit zer gertatu zen. Dakidana da salatzailea nor den. Baina horrela balitz, zertara joan zen udaltzaina? Ez naiz inor udaltzainei nola jokatu behar duten esateko. Hala ere, jarrera errepresiboa hautatu dutenek, ez dute nire begirune eta errespeturik.

2. Auzibidean den arazoa izanik, ez omen da komeni komunikabide-tan eztabaida faltsuak zabaltzea. Diskrezioz jokatu omen duzue. Faltsua? Zer da faltsua? Eta zuen diskrezioa? Ja, ja! Betikoa egin duzue; Bastidak salatutako 9 gazteren aferan, Unai Lizasoren torturen aurrean... aurpegia ezkutatu, ahal den isilen pasatu, zenbat eta jende gutxiagok jakin, orduan eta hobe, zuentzat noski! Honi, biktimismo merkea deitu diozu. Merkea? Ez dizut opa horrelako merkealdirik; milaka euroko isunak, kartzela zigorrak... alkate ohiaren muntaiaगतिक jarriak asko.

3. Kokoteraino omen zaudete hainbeste nahasterekin, batik bat gezurra zabaltzeko erabiltzen direnekin. Hor barrabilak ukitu dizkidazu. Gauza asko esan nuen artikulu hartan, baina gezur alerik ez, denak ziren egia. Zure inguruko jendea da gezurrak esan, salaketak jarri eta gazteak epaileen esku utziz epaitu eta kondenatzeko lotsarik ez daukana. Zuk horren aurrean ez duzu ezer egin, egiten eta egingo zirenekin.

4. Azkenik, esaten duzu denon artean saiatu beharko genukeela elkarbitza normalizatua egiten; ba, ez ahaztu zure alderdiaren aulki batzuk, Habeari dagozkiola. Itzultzea ez litzateke hasiera txarra.



## Apunteak ▶

### GORA.

III. Erriarraitz Sariketa jokatu da otsailean. Saio guztietan ikusle asko izan ziren, eta saioak ere politikak. Lan bikaina egin dute berriz ere antolatzaileek eta parte hartu dutenek.

### BEHERA.

Goizean goiz ez du itxura onik izaten Parte Zaharrak. Izan ere, 9:00etan oraindik hor izaten dira etxeetako zaborrak, behean utzita. Zabor biltzaileak pasatu gabe izaten dira artean.



Kea irteten herriko lantoki batean.

### GALDERA.

Ekologistak Martxan eta Sagarre taldeek Azpeitiko airearen kalitate eskasa salatu dute. Herrian PM10 partikularen baimendutako maila gainditu egiten dela esan dute. Neurririk hartuko al da?

## Uztarria.com ▶

### Inkesta.

**Zure soziedadean sagardo kupelik ba al dago?**

- ▶ Bai. %32,4.
- ▶ Ez. %67,6.

### Orain dagoena.

▶ **Inkesta.** TAO sistema herriko beste gune batzuetara zabaldu beharko al litzateke?

▶ **Eztabaida.** Azpeitian elkarte askotako zuzendaritzan jende berak zergatik daramatza urteak eta urteak?

## Zer dio? ▶ Maite Segurola (Bilgune Feministaren izenean)

### Gure ardura

**I**ritsi da komunikabide eta alderdi politikoek emakumeaz hitz egiteko duten eguna. Martxoaren 8a, emakume langileen aldarrikapen eguna izanik, ikusezin izateari uzten diogun egun bakarretakoa da, eta aurtengoan, urtero bezala, badugu zertaz hitz egin, badugu nahiko arrazoi kalera irten eta gure aldarrikapenak lau haizetara egiteko.

Azken bi hamarkadetan Euskal Herriko emakumeen bizi baldintzak hobetu direla esan behar dugu. Baina ez gaude instituzioetatik esaten dituen bezain egoera onean. Iazko eraiketa eta bortxaketek, emakumeok jaietan izan beharreko parte-hartzeak sortzen duen ika-mikak edota emakumeok lan beragatik gutxiago kobratzen jarraitzeak (zehazki, %36 gutxiago) parekidetasuna oso urrun dagoela adierazi besterik ez digute egiten. Baina sistema patriarkalak eragindako arazo horien aurrean, Euskal Herrian

bizi garen emakumeok gure alternatiba propioak eraiki eta jendartea errotik eraldatzeko hautua egin dugu: Euskal Herriko Emakumeen Eskubideen Gutuna.

Martxoaren 8 honetan abiatu eta urte osoan zehar zabalduko dugun eztabaida prozesuan emakumeen eskubide eta aldarrikapenen zerrendaketa zehatza egitea nahi genuke, gure behar eta aldarrikapenetatik abiatutako eskubideen zerrenda, ez gizonei aitortutako guretzako moldaketa bat.

Emakumeok ezin gara eskubideak bermatuak izan daitezen zain gelditu. Gure ardura da, bakoitzak bere esparrutik, parte hartzea, eskubideak eta aldarrikapenak beteak izan daitezen bultzatu eta exijitzea. Denon artean bildu eta duintasunez borroka gaituzten egunero zapaldu eta mugatzen gaituzten arau heterosexisten kontra, gure eskubidea delako.

### Parte zaharra

**H**erri gehienek bezala badu gureak ere bere parte zaharra. Azpeitiko historia handia edo txikia bizi izan duena eta urteetako eraginez hainbat aldaketa jaso izan dituena. Zaldiak, karroak, bizikletak eta kotxeak jendearekin batera bizi izan dira eta ondoren autobusak eta kamioiak.

Gezurra dirudi gure kale estu horietatik *Guipuzcoana* autobusak edo 'Martzialeko' kamioiak pasatzen zirela pentsatzea ere...

Parte zaharreko kaleetan jolas ugari egin dugu bertan bizi izan gareno, eta plazuelan, 'monumentuaren' inguruan, makina bat ordu pasatu gaztetako zenbait kontu eta istorioak kontatzen! Orduan ez zegoen liburutegi publikorik, ezta ludoteka edo gazte lekurik ere, eskolatik atera eta *debereak* egin, aurretik edo ondoren, eta bokadiloarekin kalera! Zenbat jolas! Harrapaketan, baloiarekin, tortoloxarekin...; gaur, ordea, jolas asko gal ez daitezen liburuetan jasotzen dira. Pasatutako denborak ez dira bueltatzen, ezta komeni ere! Ez behintzat, ber-berak.

Hala ere, gaurko haurrek jolas gutxi egiten dute kalean, denek dute denbora bete-betea, eskolako lanekin, extraeskolarekin... Etxe berriak egiten diren inguruetan, ordea, saiatzen dira parkeak eta berdeguneak ipintzen eta, horrela, bertako umeak eta gazteak tarteka, bertan biltzen dira.

Parte zaharrean ezin da berdegunerik atera baina kaleak oinezkoentzat izango dira! Beraz, berrikuntzarekin bikote gazteak bertan bizi izaniz, aukera berria izango da. Txikiteoa ia bukatu da, gaez arimarik ez da kaleetan eta aurrerantzean umerik ikusiko ote dugu jolasean?


Eta ametsetan jarraituko bagenu? Plaza ere kotxerik gabe ikusteko aukera izango al dugu?

## ◀ Eta beste



Maria Jesus Aranburu

**Azpeitia hiri zintzo eta leiala** ▶ Andoni Salegi



## Bat hirutara ▶

▶ Oraingoan ehizaz eta hegaztien gaiaz ariko dira hiru gazteak. Honela laburbildu dute beraiek artikuluia: "Pim, pam, pum! Hegaztiak ehizatu, hipokondria sustatu eta Xabier gaixotu!"



Xabier Aranburu Mikel Aizbitarte Haizkurgi Uzin

# Pio, pio

**M**ikel. Horrela ez zagok jarraitzerik! Astea joan, astea etorri beti, aurpegi zurbil horrekin. Parranda gutxiago egiten hasi beharko diagu ba, ez dauzkak-eta hamazazpi urte!

**Xabier.** Egon hadi ixilik, ohetik jaiki ezinda ibili nauk eta lau egunean ondoezak jota. Telebista ikusi eta janari garbia janez igaro ditiat azkeneko egunak. Arroz zuri lehorra eta oilasko paparra izan duk nire menua. Hori duk aspertzea, hori!

**Haizkurgi.** Hire gaixotasun hori bazekiat nik zer den, aurreko asteburuan harrapatu huen *legatzaren* biharamun latza. Gibelak ere bere mugak ditik; hirearekin behintzat, pate onik ez ditek aterako.

**Xabier.** Zuek eta zuen betiko leloa. Jakizue ba, aurreko larunbatean goizeko ordubata baino lehen etxean nintzela. Uso-jana izan genian Caza y Pesca Ollagorria elkartean; *Kali* genian sukaldari. Afalostean ez ninduan ongi sentitu eta alkohol tantarik probatu gabe joan ninduan etxera.


**Mikel.** Hik dauzkak potroak, hik! Kaliren kuadrilako *Pitti* eta *Armax* Azkuek ekarritako usoak jatea baino nahiago diat astebeteko baraualdia egitea. Haiek erotuta zeudek, moteil.

Lepoa jokatuko nikek ibai bazterrean hilda aurkitutako edozein hegazti jaso eta eurek bota dutela esateko gai direla. Uste baino larriagoa izan zitezke hire kasua, hegazti gripea ote duan ere pentsatzen hasia nauk...

**Xabier.** Ez ezak txantxetan ere esan horrelakorik! Azken egunotan nahikoa 'paranoia' izan diat hegazti gripea dela eta ez dela. Telebistan beste konturik ez zagok eta hori gutxi ez balitz, leihotik begiratzen nian bakoitzean Urola ibaian dauden ahate malapartatu andana ikusten nian. Gainera, ahate batzuen jokaera ez zuan batere normala. Ezin diat ulertu nolatan bihurtu den azpeitiarren denborapasa berria birus eramaile potentzial horie jaten ematea. Ez alda inor konturatzen ugalduta eta ugalduta ari direla? Nork kontrolatzen du neurriga b e k o ahate ejertzi-

tu hori? Zer gertatuko da Azpeitira hegazti gripea etortzen bada?

**Haizkurgi.** Ez hadi memeloa izan. Garbi zagok bai, azken egunotan telebistan esandako guztia irentsi duala. Hi bezalako 'gaixo paranoikoen' kontura berriz ere aberastuko dituk Europako farmazi enpresa bote-retsua. 'Hegazti gripea' esaten den gaixotasuna ez duk gaur goizeko kontua. Urteetan hor egon duk eta ez duk aparteko ezer gertatu. Oraingo honetan, ordea, munduko hedabide nagusiek gaiari eman dioten oihartzunak izugarriko psikosia sortu dik. Ez zekiat zer gertatzen den gaur egungo kazetaritzan baina zirudik



bi agentzi nagusik kontrolatzen dutela munduan sortzen den informazio guztia. Hedabide txikiek, agentzia horiek saltzen dieten informazioa soilik ematen dutela zirudik, masak kontrolatzeko aparteko egoera! Dena den, muntaia honetan gauza bakarra zagok garbi: eroa izan behar dela Pittik 'ehizatutako' eta Erremenek lumatutako usoa jateko.

**Mikel.** Haizkurgik arra-

zoi dik, hegazti gripearen kontu hau izugarri puztu ditek. Gogoratu bestela, behi eroen kasua bat-batean nola itzali zen. Orain ere behi eroak egongo dituk, pertsona eroak dauden bezala, Xabier (kar, kar, kar...), baina lasai asko joaten gaituk sagardotegietara, txuleta bikainak dastatzera, hezurra zuritu arte.

**Xabier.** Zuen hitzek ez naitek lasaitzen. Are gehiago: kopeta gero eta beroago sentitzen diat, ziur sukarra dudala. Banak bihar bertan ospitalera H5N1 birusaren proba egitera. Bueltan udaletxetik pasatuko nauk eskakizun garbi batekin: ehizatze baimena duten *astakilo* guztien zerrenda, publiko egitea. Batzuen *hobby* odolza-leak ez dik beste guztion osasuna, musutruk, kolokan jarriko. Ehiztariak arrisku faktorea dituk, birusaren eramaile potentzial garbienak eta ehiztari ez garenok eskubidea diagu arriskuaren ondoan gauden edo ez jakiteko. Eta, bide batez, osasun sailak bidal ditzala begirale batzuk herriko elkarte susmagarrietara, legea betetzen duten edo ez ikustera. Ez nitek nahi maskarila baten beharra izaterik kalera irtetzeko.

**Mikel.** Hik maskarila ez, hik behar duana segurtasun elastiko bat duk; agudo, gainera.



# EZKUTUAN utzi gabe

**Santa Larizgoitiak adimen urriko semea du: Juan Ignacio. Hasieratik egin zion aurre horri. Ez du ezer ezkutatzeko**

► Testuak: Enekoitz Esnaola ► Argazkia: Ihintza Agirretxe

**1** 959an eduki nuen Juan Ignacio; adimen urrikoa bera. Ez ziren garai onak halako pertsonentzat eta horien gurasoentzat. Izan ere, ez dakit zergatik baina halako pertsonak etxean izan ohi zituzten orduan, ezkutatuta bezala, pertsonak ez balira bezala. Eta hauek zer egin digute ba guri? Ogi puskek ez dira ba! Baina bazegoen kultura hori atzeratuekiko. Juan Ignacio guretzat laugarren seme-alaba zen eta, garai hartan, haurdun zeundenean, ez zenuen izaten informaziorik; erditzean jakiten zenuen dena: nolakoa zen... Juan Ignacio jaiotzean, nire gizonak ikusi zuen eta hura disgustua harentzat! Ez zuen espero. Pentsa, gizonak 20 kilo galdu zituen nire seme hau jaio ondoren. Ezin zuen, ezin zuen... 'Atzeratua guri jaio behar!', eman behar hori esaten zuela, buruhauste hori zuela.

Ba nik ez. Ni aurretik ere garai latzak pasatuta nengoen. Gerran atxilotuta egon nintzen. 1937an izan zen hori. Orduan atera nuen erizain titulua, Valladoliden, Basurton eginda ikasketak, baina gurasoek ez zuten nahi nik lan egiterik (gero ere ez gizonak).

Hau da, emakumea nintzen eta emakumea, etxerako. Hori zen haien iritzia, kultura. Nirea ez. Eta urtebetez behintzat, lan egin nuen, probatu egin nahi nuen. Hala, 1937an, Deustun probetan egon nintzen erizain, Eusko Gobernuaren ospital batean; gerra bizi-bizi zegoen, jendea behar zutela eta haraxe neu. Eta, halako batean, han etorri ez ziren ba ni atxilotzera! Gehiago zen gure aita EAJkoa zelako, nahikoa sartuta zegoelako, ni neu abertzalea eta erizain laguntzailea nintzelako baino. Hiru egunegon egon nintzen Bilbon preso, aitarekin eta lehengusu batekin. Handik askora ez, berriz, gure etxe osoa eraitsi egin zuten Francoren aldeko hegazkinek, Ugaon (Bizkaiko herri txiki horretakoa naiz ni). Batere gabe geratu ginen. Bilbona, lan bila.

1942an ezkondu nintzen, 26 urterekin (1916koa naiz), Bilbon, Eugenio Madinarekin; oñatiarra zen. Esan bezala, Juan Ignacio seme-alabetan laugarrena da, eta hirugarrena bai izan zela disgustua! Neska jaio zen eta bost hilabetera, hil; bihotzeko arazoak zituen gaixoak. Aurrera egin

behar, eta ustekabeen, Juan Ignacio jaio. 1959an izan zen hori. Dagoeneko bederatzi urte bagegeneramatzen Azpeitian. Gizona Banco Guipuzcoanoko zuzendaria zen Bilbon eta handik hona bidali zuten. 1950etik, beraz, hemen nago. Javier eta Arantxa seme-alabak Bilbon jaio ziren. Juan Ignacio ez.

Orduan atzeratuez ez zegoen inolako informaziorik, eta egia esango dizut: ez genekien Juan Ignaciok ibiltzerik izango zuen, hitz egiterik... Hala da, bai. Eta segituan, halakoekin aditua den mediku batengana eraman genuen, Donostiara: Jesus Ganzarainengana. Gauza asko esan zizkigun. Bi aipatuko ditut. Aurrena, bitxikeria: esan zigun Juan Ignaciok ahora askotan eramaten zuela zotza, ikusi orduko, eta 'erretzailea izango da', bota zuen medikuak. Bai asmatu ere! Ene, erretzen du, bai, gure seme honek, eta horixe dut berekin arazorik handiena... Bigarren gauza: 'Atera ezazue kalera', esan zigun Ganzarainek. Eta kasu egin nion: ez nuen etxean ezkutatu. Eta singularrean ari naiz hizketan; izan ere, gizona 1965ean hil zitzaidan,



neuk 49 urte nituela, eta azkenean 40 urte hauetan hor egon naiz, beti Juan Ignacioren ondoan.

Baina horrek ez du esan nahi oso desberdin tratatu dudarik, eh! Begira, nik etxean Javier eta Arantxa bezala hezi izan dut hau. Errieta? Errieta. Erakutsi gauzak? Erakutsi. Eta kalera atera. Eta kalean utzi ibiltzen lagunekin. Eskolara ere eraman genuen,



hasieratik; Misericordian hasi zen azkenean, eta zoragarri. Gure seme honek leitzen daki, idazten... Atzeratuen eskola sortzeko lan pixka bat ere egin genuen, eta han ere ibili zen. Azkeneko urte askoan, berriz, lanean, Gureak-en. Hasieran Lasaoan, orain Azkoitian. Oso diru gutxi irabazten du baina mutila gustura dabil. Ni ere kontent, baduelako zereginik.



## **BATERA.**

**Maitea du oso Juan Ignacio Madinak ama, Santa. Eta amak semea. 46 urte daramatzate elkarren ondoan. Argazkian, biak, etxeko terrazan.**

Nahita utzi izan diot nolabait bere erara moldatzen. Eta berak jakin izan du moldatzen. Pasadizo bat: akordatzen naiz txikitin zine- ra joaten zenean, sarrerak bost pezeta balio zuenean, berak eman nahi izaten ziola txanpona zinekoari. Eta askotan joan izan da karnabaletan-eta txarangako- engana, zuzendari aritzeko asmoz; hori bai, beti eskatu izan

die berak baimena. Eta Lagun Onak futbolekoekin kanpora joateko aukera ikusten duenean, kanpora. Eta igerian ikastera? Igerian ikastera. Erosketak egite- ra? Eguneroko joatean da: lanetik etortzen da, egunkaria leitzen du, zigarro bat erre eta plaza aldera paseoa, ogia erosi –beti ematen dizkiote pare bat boilo, gainera- eta etxera. Nik ez dakit zer egiten duen baina kanpora doan bakoitz- ean etxera zerbait ekartzen dit; adibidez, askotan joaten da Erre- zil aldera Zinkunegitarrekin arratsalde-pasa, telebistan futbola- edo ikustera, eta han etortzen zait arrautzekin, kiwiarekin...

Nola portatzen den gure hau... Eta nola portatzen den jendea berekin... Oso gustura nago; oso- oso.

Baina beti badu kezka bat: nire adina eta zer gertatuko zaidan. 89 urte ditut baina Juan Ignaciok denei beti esaten die gutxiago ditudala eta ez naizela 'zaharra'. Baina gero galdetzen dit: 'Ama, zer egingo dut nik zu hiltzen zarenean?'. Eta nola defenditzen nauen... Begira, behin emakume batekin topo zuen, eta emakume hark galdetzen zion ni non nengoen eta nobioarekin egongo nintzela; Juan Ignaciok ezetz eta ezetz. Besteak beste, gure honek aita oso gogoan duelako. Etxeko salan nire senarraren argazki bat dugu eta Juan Ignaciok eguneroko hitz egiten dio, entzungo balio bezala: amak hau egin duela, errieta egin diola... Ba halako batean beste emakume hari gizona hil zitzaion, ikusi du Juan Ignaciok emakume hura beste batean kalean eta danbal: 'Zer, nobio bila hasi beharko duzu...! Bitxo ederra da ba!

Pertsona da, azken batean. Egia esango dizut: gauzak nola egin behar diren-eta guk hauei erakutsi beharrean, beraiek erakusten digute guri. Edukatuak dira, ordenatuak, garbiak, kari- ñosoak... Beraz, gu bezalako gurasook lotsatu hauengatik? Ez". ◀

egun batez

# AKTORE

Arantzazu, Ander, Elena, Jose Antonio... eta Txolarteko lagunak dira aktore. Hain zuzen ere, film labur bat grabatu dute, euren eguneroko bizitzaren berri emanaz



## ▲ HIRU, BI, BAT...

Txolartekoek euren eguneroko bizitza azaltzea dute helburu grabatu duten film laburrean. Horretarako, leku ezberdinetan grabatu behar izan dute: kalean, igerilekuan, Gureak enpresan...

## GERTUTIK.

Kamerekin gertutik segitu diete Txolarteko kideei, eguneroko bizitza azaldu nahian. Argazkian, Gureak enpresan, Nerea Aizpitarte, Jose Mari Iurre grabatzen.



## AURRETIK...

Grabaketa hasi aurretik ongi prestatu behar dira gauzak. Elena Martinek igerilekuan grabatu behar izan zuen. Txukun-txukun gorde zituen bere gauzak.



## KALEAN.

Nahiz eta hotz handia egin, ez ziren nazkatu filmeko agerrialdiak errepikatzen. Argazkian, igerileku aurrean Iñaki Badiola, Jose Antonio Zubimendi eta Patricia Elias.

## ADI-ADI.

Txolarteko begiraleak, aktore bakoitzari eginbeharra azaltzen zien bitartean, adi-adi egoten ziren. Argazkian, Maite Azpiazu, Arantzazu Larrañaga azalpenak ematen.



## BARREAK.

Dena ezin da ongi egin eta gaizki egindakoekin barre egitea da onena. Tarteka, ordea, kirioak ere dantzan izan zituzten aktore zein begiraleek. Argazkian, Jose Antonio eta Patricia barrez.

## EMAITZA.

Garbaketa egin eta gero, emaitza ikusi behar izaten da. Elenak adi-adi begiratzen zion bideo kamerari. Barre ederrak egin zituen bere burua pantailan ikusita.



Clínica Oftalmológica  
**RECALDE**  
Oftalmología Clínica

# www.clinicarecalde.com

MIOPIA LASER - KATARATA EBAKUNTZAK

Plaza Barria, 2 - 2º - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tfnoa.: 943 20 18 44



## Eregi-k Hitzekoren lekukoa hartu du ▶



Eregi-ren irudia.

Uztarría Kultur Koordinakundeak 2004an sortu zuen Hitzeko enpresak izena aldatu du eta orain Eregi da. Urte berriarekin, Hitzeko Euskara eta Komunikazio Zerbitzuak enpresak eraberritze prozesuari ekin dio eta, ondorioz, enpresak bere izen komertziala aldatu du; hala, dagoeneko Eregi Euskara eta Komunikazio enpresa izena du.

### Eregiren zerbitzuak.

▶ Eregi Hitzekoren zerbitzu berak eskaintzen ditu; euskara zerbitzua, itzulpenak, euskara planak, komunikazio zerbitzua, komunikazioa (enpresen irudi korporatiboa, anagramak, katalogoak, txartelak, diptikoak, aldizkariak, panelak...) eta bestelako produktuak (agendak, postalak...).

### 2.500 aleko tirada jada

Uztarría aldizkariak gero eta irakurle gehiago ditu, tirada gora baitoa. Martxoan 2.500 ale atera ditugu; aurtan bertan 2.400etik 2.450-eraigo genuen.

### Liburuak Zumaian

Uztarría Kultur Koordinakundeak ateratako liburuak Baleike Zumaiaiko Euskara Elkarteak antolatutako liburu eta disko zaharren azokan egon ziren. Han bildutako dirua Saharara bidali dute.

## blog komunitatea HANDITUZ ETA SENDOTUZ

Ilazko urrian ekin zion uztarría.com-ek blogen atalari. Hasieran bederatzita lagun jarri ziren martxan, eta blogek izan duten harrera ikusita, pixkanaka handitzen doa atal hori.

▶ **PERTSONALAK.** Hasieran hasi ziren blogariez gain, Ainhoa Odriozolak, Andoni Salegik eta Leire Larrañagak ere badute orain euren bloga; Odriozolak artikulua idazten ditu, Salegik komikibloga du eta Larrañagak argazkibloga. Nerea Arangurenak utzi egin zuen.



Leire Larrañagaren argazkiblogeko orria.

### ▶ TALDEAK ERE BAI.

Martxotik aurrera blogari berriak daude uztarría.com-en, eta, hain zuzen, taldeak dira. Oraingoan, hauek hasi dira (gehiago izango dira laster):

- ▶ Xeye Atletismo Taldea.
- ▶ Areto futboleko taldea.
- ▶ Gaztetxea.
- ▶ Matadeixe.

### ▶ BLOGA IZAN NAHI?

Bloga izan nahi duten pertsonak edo taldeak Uztarríarekin harremanetan jarri besterik ez dute. Blogari izateko nahitaezkoa izango dute webguneak dituen arauak errespetatzea. Atalarekin martxan jarri nahi dutenei, azalpenak ematen dizkie Uztarríak, blogen nondik norakoak azaltzeko. ◀



# 1.043

bazkide gara dagoeneko Uztarrían; eskerrik asko denei

## egin zaitez bazkide UZTARRIAN



### Zure datuak Uztarríari helarazteko aukerak:

▶ Julian Elorza Hiribidea 4, behe eskubia (Azpeitia, 20730) ▶ 227 posta kutxa, Azpeitia  
▶ uztarría@topagunea.com ▶ Telefonoa (eta faxa): 943 15 03 58 ▶ www.uztarría.com

IZEN-ABIZENAK ▶

NAN edo EHNA ▶

HELBIDEA ▶

HERRIA ▶

TELEFONOA ▶

E-MAILA ▶

KONTUKO 20 ZENBAKI (harpidedunek ez) ▶

### BAZKIDEAK ▶

Urtean. 24 euro. Jasoko dituzu.

- ▶ Uztarría herri aldizkaria.
- ▶ Joxe Takolo eta Imanol Elias biografiak.
- ▶ Euskarazko prentsa eta Azpeitia liburua.
- ▶ Loiolarik ez balitz liburua.
- ▶ Otsobeltz liburua.
- ▶ Erdi prezioan: Mendi gida eta Azpeitiko efemerideak.
- ▶ Literaturtz aldizkaria.
- ▶ Urola Kostako Hitza.

### \*HARPIDEDUNAK ▶

Ez du diruz laguntzen. **Jasoko dituzu.**  
▶ Uztarría eta Hitza.

# LANARI

## lotuta

**Medikuntza du pasio eta ofizio Karmelo Loinaz azpeitiarrak. Lanari lotuta, Madrilen bizi da, baina ahal duen bakoitzean etortzen da**

► Testuak: Oihana Elduaen ► Argazkiak: Karmelo Loinazek utzitakoak



**M**adrilen 20 urte daramatza dagoeneko Karmelo Loinaz azpeitiarrak. Medikua da bera. Medikuntza ikasketak bukatu zituenean espezializazioa egitera joan zen Espainiako hiriburura, 12 de Octubre ospitalera. "Espezializazioa bukatutakoan hemen egun bakar bat gehiago egiteko asmorik ez nuen; alegia, 5 bat urte egitekotan etorri nintzen. Baina 20 urte eta oraindik hemen nago!". Bertan geratzeko erabakia hartu zuen, lanari lotuta. Espezializazioa egin ostean 12 de Octubre bertan geratu zen lanean duela bi urtera arte. Geroztik Alcorcon ospitalean dihardu, zerbitzuko burugisa. Familia ere osatu du han, eta hango bizimodura ohitu bada ere, ahal duen guztian etortzen da erroak bota zituen herrira.

Azpeitia eta Madril zeharo desberdinak dira, ikusi batean. Kostatu zitzaien Loinazi hango bizimodura ohitzea. "Ni ohituta nengoen ikastera-eta toki denetara oinez joatera. Hemen, ordea, beste distantzia batzuk daude, eta pixka bat kostatu zitzaidan horrenbeste kotxe eta trafikora ohitzea". Hala ere, denborarekin denera egiten omen da gizakia. "Zer erremedio!".

Bizimodua erabat desberdina da hiri

handi eta txikietan. Dena den, Loinazek garbi zeukan hiri handi batera joan nahi zuela. "Espezializazioa egitera hiri handi batera joan nahi nuen. Dudan egon nintzen Bartzelonara joan edo Madrilera etorri, eta azkenean Madrilera etortzea erabaki nuen". Hirietan bakoitza bere erara ibiltzen da, eta ez dira herrietan bezala bizilagun guztiak ezagutzen. "Auzokoak ezagutzen ditugu, eta haiekin oso ondo kontopontzen gara, baina ez du batere zerkusirik herri batean egin dezakezun bizimoduarekin. Horretan ez dago dudarik".


Bizimoduak bizimodu, Euskal Herrian, Espainian, Japonian eta Ameriketako jendeak antzeko dudak dituela dio. Japonian eta Ameriketako ere ibili baita Loinaz, lanera joanda. "Bakoitzak bere lana du eta bere mundua. Denak desberdin bizi gara. Hala ere, eguneroko gauzetan denean ere nahiko antzekoak gara. Beste nazioetan-eta bolada luzez egon izan naizenean, hori ikusi dut".

► **KANPOTARREK ARAZORIK EZ.** Madrilen kanpotarrak ondo hartzen dituztela dio, eta bera ere halaxe hartu zutela. "Madril oso hiri irekia da, kanpotik etortzen garen jendearentzat. Hemen bizi direnen erdiak ere kanpotarrak dira, eta, beraz, etorritakoei ez zaie kanporratei bezala begiratzeko, ez dira desberdin ikusten".

Euskal herritarrak, gainera, oro har "nahiko ondo ikusita" daudela dio. Hori bai, denean bezala, aurrean nor duzun ikusi eta hari nola hitz egin jakitea garrantzitsua da, arazorik ez izateko. "Jende zelebrea ere topatzen duzu, denean moduan, baina ez da gehiengoa".

Madrilen errotuta al dagoen galdetuta, ezetz erantzuten du azkar Loinazek. Aldaketara erraz ohitzen da, eta prest dago berean lana eskaintzen badiote, berriz ere lekuz aldatzeko. Baina hori ez da hain erraza.

Trasplanteak-eta egitea du lan-



Karmelo Loinaz, kirofanoan ateratako argazki batean.

bide, eta hori Madrildik kanpora egitea ez da erraza. Behin lan horretan hasi eta gustua hartuz gero, zaila da beste nonbaiten lekua aurkitzea. "Lan horretan segitzekotan hemen jarraitu beharra daukat, momentuz beste aukerarik ez baitut". Bestela, etorriko litzateke, beregatik. Orain, ordea, ez du bere iritzia bakarrik kontatzen: "Emaztea ere medikua dut, eta hasteko, biok izan behariko genuke lana toki berrian. Bestalde, umeak ere koskortu dira, eta haiek ere badute zeresanik".

Hiru hilean behin-edo etortzen da. "Ikaragarri botatzen dut faltan horko jendea. Familia eta lagunak. Hemen ere badituzte lagunak, baina horiek ez dira inoiz izaten txikitzen egindako lagunaren pare-

koak. Haiek dira betiko lagunak, eta hemen falta ditut. Horregatik, joaten naizen bakoitzean gustura egoten naiz, hona etortzeko alfergurarekin-eta. Gainera, beti oportretan joaten naizenez, orduan eta gusturago!".

► **M-11KOA.** Medikua gisa, gaixoei "distantzia" izaten saiatzen diren arren, 2004ko matxoaren 11n gertatu zena gogorra egin zitzaion Loinazi. Trenetan jarritako bonbak eztanda egiten hasi zirenean, lanean zegoen. Gogorra izan zen denentzat. "Komunikabideetan esaten hasi zirenean konturatu ginen gertatzen ari zenaz". Madrileko beste ospitale batzuetan urgentzietarako dispositiboak jarri zituzten, eta Loinaz

**Datua ▶**

# 20

## URTE HAN.

Karmelo Loinaz 5 urte pasatzeko asmotan joan zen Madrilerara, eta dagoeneko 20 daramatza hantxe.

“Espezializazioa egiteko, dudan egon nintzen Bartzelonara joan edo Madrilerara etorri”

“Gu ohituta gaude zaurituak hartzen, baina M-11koa bereziki zaila izan zen, ez zelako ohiko kasua”

**KARMELO LOINAZ ▶**  
medikua

eta beste profesional batzuk haietara joan ziren. "Egunero izaten ditugun kirofanoko lanak bertan behera utzi genituen, odola gordetzeko-eta. Larrialdietakoak baino ez genituen egin".

Zauritu gehiegi gabeko ospitalera joatea egokitu zitzaion, "hogeitaka batzuk" zeuden, eta gaitzerdi. "Guretzat ez zen batere kargarik izan. 300 oheko erietxe bat da gurea, eta ez zuen batere pisurik izan. Beste batzuetan askoz karga handiago izan zen".

Horrelako egoerei emozionalki buelta ematea ez da oso samurra, distantziak distantzia. "Gu ohituta gaude zaurituak hartzen,

baina hura bereziki zaila izan zen, ez zelako ohiko kasua. Hasieran inork ez zekien ondo zer gertatzen ari zen, zurrumurruak bai, zaurituak zirela, hildakoak zirela... Gero, orduak pasatu ahala jakin genuen zer mailako tragedia zen, eta zer gertatzen ari zen".

► **MEDIKUNTZA PASIOA.** Medikuntza du pasio Loinazek. Lana gustura egiten du. "Guk lan asko egiten dugu, baina gustura egiten dugu. Ez ditugu kontatzen sartzen ditugun orduak-eta, asko gustatzen zaigulako gurea. Hori alde handia da lana egiteko". Gaixo bat sendatzea lortzen dutenean, pozarren geratzen dira. Horixe delako beraien egitekoa eta helburua: "Jendeari laguntzea".

Baina dena ez da polita. Batzuetan ez da gaixoak sendatzerik izaten. Frustrazioa sentitzen dute horrelakoetan. Baina sendatzea lortzen ez dituzten gaixoen artean bi motakoak daudela azpimarratzen du. Gaur egun sendaezinak diren gaixotasunek jotako eriak daude, alde batetik. "Kasu horretan, gaixoak ahal den sufri-mendu gutxien pasa dezan ahaleginak egiten dituzu". Entzutea, laguntzea eta sintomak arintzea asko eskertzen diren ekintzak dira, kasu horietan behintzat.

Bestaldean daude, gaixotasun sendagarriak izan arren, konplikazioak sortu eta gaixoa sendatzerik lortzen ez diren kasuak. "Hori oso gogorra izaten da". Baina distantzia izaten saiatzen dira. "Geu gaixo edo senide bezala ikusten hasiko bagina, ezingo genuke lanik egin". Eta ezin lanik egin gabe egon. Lanari lotuta bizi dira. Medikuntza dute pasio. ◀



ostadar optika

OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17  
Tel. 943-810664  
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28  
Tel. 943-850445  
AZKOITIA

[www.uzfarrria.com/blogak](http://www.uzfarrria.com/blogak)  
animatu zure taldeko bloga izatera!

# GURASOEN

## babesean

### Txinatik, Bulgariatik, Kolonbiatik eta Hondurastik adopzioan umeak ekarri dituzten gurasoen esperientzia: hasieran astuna, gero gozoa

► Testuak: Kepa Urbietta eta Ainitze Oruesagasti ► Argazkiak: Ihintza Agirretxe

**F**amilia bat osatzeko nahiak muga guztiak apurtzen ditu. Bestela, galdetu Mamen Saldañari, Jaione Valberderi, Izaskun Badiolari eta Elizabet Gezalagari. Lau ama horiek, adopzioan ekarritako umeak dituzte: Intza Ruo Wei Txinatik, Aitor Bulgariatik, Alejandra eta Angela Kolonbiatik, eta Isaac Hondurastik.

Zaila ez baina konplexua izaten da ume bat adoptatzea, haur bat adoptatu duten familien hitzetan. Izan ere, prozesua luzea izaten da eta zergatiaren arrazoiertako bat honakoa da: Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietarako Sailak, Espainiako Ongizateko Ministeritzak eta atzerriko gobernuaren organuak hartzen dute parte; kasu askotan, nazioarteko erakunde laguntzaile batek ere bai, eta, azken batean, administrazio ugari dira.

Gipuzkoako Foru Aldundian Gizarte Politikako Sailak jorratzen du adopzioen gaia, eta, hain zuzen, azpeitiar bat da saileko diputatua: Esther Larrañaga.

Ume bat adoptatzeko egin beharreko lehenengo gauza, Foru Aldundira jotzea da, Larrañagak dioenez. "Bertan esaten diegu zein pauso eman behar dituzten. Aurrenekoa, derrigorrezko ikas-

“Familia baten beharra duten umeak dituzten herrialdeetara zuzentzen dira adopzio eskaerak, gaur egun”

**ESTHER LARRAÑAGA** ►  
Gizarte Politikako diputatua



taro batean parte hartzea izaten da; adopzioaren lege gaiak eta psikologia eta hezkuntzako alderdiak ezagutuko dituzte. Ondoren, gomendio gisa, atzerriko herrialdeek eskatzaileei zein baldintza jartzen dizkieten ezagutzeko hitzaldi batera joan behar izaten dute”.

Egiten diren adopzio eskaera guztiak, “familia baten beharra duten umeak dituzten herrialdeetara zuzentzen dira” Foru Aldunditik. Herrialde asko dira era horretako egoerak dituztenak. “Bakoitzak bere ezaugarriak eta baldintzak jartzen ditu, eta oso aldatkorak izaten dira, ezegonkortasun politikoa eta soziala duten herrialdeak izaten direlako ohikoena. Horrek eragina du, azken batean ziurtasun falta eragiten duelako”.

Foru Aldundiaren eginkizuna ez da bukatzen adopzio tramiteetan. “Aipatutako informazioa eta hezkuntza emateaz gain, garrantzitsua den Egokitasun Agiria ematea da gure lana. Hortik aurrera ere, behin umea Gipuzkoan dagoela, egokitzen ondo egiten doala egiaztatzeko jarraipena egiten dugu”, dio Larrañaga Gizarte Politikako diputatuak. Jarraipen horien bidez umeek izandako bilakaera aztertzen dute.

**MAMEN SALDAÑA** ►

“Umeak, aurretik nituen hutsune asko bete dizkit”

Mamen Saldaña eta bere senar Karmelo Goenaga, Intza Ruo Weiren gurasoak dira. Intza, jatorriz Txinakoa da eta hilabete honetan urtebete beteko da Azpeitera ekarri zutenetik. Saldañak eta hasieratik garbi zuten Txinatik adoptatu nahi zutela umea. “Arazoak genituen umeak edukitzeko. Ernalkuntza bidez umea izaten saiatu ginen baina ezin eta adoptatzea erabaki genuen. Konfiantza handiena ematen zigun herrialdea zen Txina”, dio Saldañak. Adopzioko tramiteak egiten has-tear zirela, Txinak bere mugak itxi zituen, hegazti gaitzagatik, eta ezin izan zen umerik adoptatu herrialde hartatik. “Hilabetera Txinak berriro ireki zituen mugak, baina gero Gipuzkoako Aldundiak itxi zituen”.

Duela hiru urte pasatxo hasi ziren adopzio prozesuarekin. “Behin gauzak martxan jarri zirenean, hitzaldi batera joan ginen. Hitzaldian atzeraka botatzen zaituzte. Baina garbi baldin badaukazu adoptatu egin behar duzula, horrek ez zaitu botako atzera”, dio amak. “Behin umearen asignazioa eginda, argazkia eta txosten bat bidaltzen dute: nola



Mamen Saldaña, Intza Ruo Weirekin.



► dagoen zainduta, nola bilatu zuten... Intza harrerako familia batekin zegoen”.

Orain urtebete joan ziren Saldaña eta senarra Txinara alabaren bila. Umea hartu zuteneko uneak gogoan dauzka: “Umeak negar asko egin zuen, eta guk ere bai. Momentu hunkigarriak izan ziren, oso onak. Haurra eskuetan genuela, ondo zegoela ikusi genuen. Orduan 10 hilabete zituen. Intzak bizkarrean-eta mantxa du eta ematen zuen jipoituta zegoela. Gu orduan kexatu egin ginen, baina mantxa asiaticoa zela esan zigutenean lasaitu egin ginen”.

Bizia alaitu dio. “Umeak, aurretik nituen hutsuneak bete dizkit eta bizia alaitu dit. Guk Txinako izena mantendu egin diogu Intzari, nahiz eta esan ziguten mutili jartzen dioten izena dela: Ru Wei (indar handiko pertsona). Irailean umea txinerako mandarín dialektoa ikasten hasiko da”.

Saldaña eta Karmelo Goena-ga, Anichi, Txinako jatorriko haurrak adoptatu dituzten gurasoen elkarteko kide dira, “eta laguntza lortu dugu bai elkartetik, baita gure aurretik esperientzia hau bizi duten jendearengandik ere”.

## JAIONE VALVERDE ►

### “Bi urte hauetan Aitorrek asko aurreratu du”

Jaione Valverdek-eta orain dela bi urte ekarri zuten semea Azeitira, martxoan. “Baina tramitazioarekin hasi ginela bost urte eta erdi izango dira”. Ez da erraza.

Semea, Aitor, bulgariarra da jatorriz, eta bi urte zituela ekarri zuten. “Guk orduan umea nondik ekarri lehentasunik ez genuen, baina une hartan Bulgaria nahiko ondo ari zen asignazioekin eta Ekai erakundearekin harremanetan jarri ginen. Nola funtzionatzen zuen gustatu zitzaigun”, dio.

“Lehenengo Foru Aldundian informatzen zaituzte, eta zer tramitazio egin behar den esaten dute. Psikologoek test-ak pasatu behar dira, eta gizarte laguntzaile

batekin ere egon ginen. Laguntzailea etxera ere etorri zen gure ingurua zein zen jakitera. Gero dokumentazio eta informe ugari bete behar izaten dira. Nahiko *latoso*a izaten da”, uste du Valverdek.

Adopzioak egiteko orduan, herrialde bakoitzak bere legeak ditu. “Guk bi bisita egin genituen Bulgariara. Lehenengoa, umea ezagutzeko, eta bigarrena, jasotzeko. Aurretik asignazioa iritsi zitzaigun, eta umearen txosten bat jaso genuen”. Valverde eta bere senarra, txosten hori jaso eta hamarbat egunera umea ezagutzera joan ziren. “Bulgarian bost egun egin genituen, eta umearekin egun batean bi orduz egon ginen. Lehenengo inpresio ederra izan zen. Haurra umezurtz-etxean zegoen eta gu hara joan ginen. Han zer aurkituko beldurra neukan baina nahiko inpresio ona jaso nuen”.

Handik bederatzi hilabetera joan ziren biak Aitor jasotzera. “Denbora tarte hori luzea egin zitzaigun. Bigarren bidaian beste bost egun pasatu genituen, eta gero etxera”.

Azeitira etorri eta lehenengo egunak “nahiko gogorrak” izan ziren. “Gabezia asko dituzten umeak dira, eta babes eta laguntza handia behar dute. Hasieran egundoko kasketak harrapatzen zituen, atentzioa emateko ahal zuena egiten zuen”.

Zikomotrizitate eta maitasun gabeziak antzematen zizkioten. “Beti pertsona helduekin egon nahi izaten zuten. Lehenengo egunetan besarkatu eta muxu eman eta eman ibili zen. Bi urte hauetan umeak asko aurreratu du”.

## IZASKUN BADIOLA ►

### “Ikusiko orduko besoetara etorri zitzaizkigun lasterka”

2002an hartu zituzten etxean Angela eta Alejandra (5 eta 4 urte) Izaskun Badiolak eta Gregorio Zabaletak. “Guraso izango diren urteen arabera, adin jakin



Alejandra Valverde, Aitor semearekin.

bateko umeak egokitzen dira”, esaten du Izaskun Badiolak.

Angela eta Alejandra kolonbiarrak dira sortzez. Handik ekarri zituzten, familia handitzeko erabakia hartu eta gero. “Lehenengotik, berdin zitzaigun nondarrak izan. Denborarekin informatuz joan ginen eta esan zigutenez, Kolonia adopzioarako proposa zen, gauzaktukun egiten zituztelako, eta hori garrantzitsua zen”. Beste arrazoi bat ere egon zen tartean: “Han gaztekeraz hitz egiten denez, elkar ulertzea errazagoa izango zela pentsatu genuen”.

Erabakiak hartzea zaila izan ohi da askotan eta familia handitzea ez da hutsaren hurrena, baina batzutan ezusteko laguntzak izaten dira: “Bai edo ez erabakitzen ari ginen garai horretan, irratian Ekairi buruz hizketan ari zirela entzun genuen. Animatu ginen eta

asko lagundu ziguten, nahiz eta, hala ere, norberak paper kontu asko egin behar”. Dena dela, gauzak oso ongi joan zitzaizkien. “Tramitazioa luzea izaten da normalean, paper asko bildu behar izaten direlako, dokumentazioak-eta tarteko, baina gure kasuan alde horretatik ez genuen arazorik izan, bi ume hartu behar genituelako, eta horiek izango zuten adinarenatik ere (hirutik seira bitartean) errazagoa egin zitzaigun guztia”.

Kolonbiaraino joan ziren bila eta ez zuten luzerako utzi bi alabekin egoteko aukera, joan eta hurrengo egunerako esku artean zituzten eta. Tramitazio guztiak bukatu bitartean han egon ziren. “Bogotara ailegatu eta hurrengo egunean umeak hartu genituen. Aurrez prestatuta joaten zara, akaso hasieran erraza ez dela izango esaten dutelako. Dena



Izaskun Badiola, Alejandrekin eta Angelarekin.

ondo, ezin hobeto joan zitzaigun. Ikusi orduko besoetara etorri zitzaizkigun lasterka, *papi* eta *mami* esanez. Bertan 23 egun pasatu genituen, epaiketak eta gainontzekoak bukatu artean".

Azpeitira etorrita, gurasoen ezusterako umeek eskolarako grina erakutsi zieten, eta ez zuten lan handirik izan lurralde eta kultura berri batera egokitzeko. "Gure asmoa Gabonak pasatu ondoren eskolara bidaltzea zen, baina eskolara noiz joan behar zuten galdezka hasi zitzaizkigun hasieratik. Halaxe eraman genituen eta baserriar jantzita Olenzero kantatzen bukatu zuten Gabonetan. Oso ume irekiak dira".

## ELIZABET GEZALAGA ▶

### "Askotan diot nire igual-iguala dela"

Elizabet Gezalagak lehen ere familian halako kasua izan zuen (osaba adoptatua) eta ez zaio batere arrotza egiten ume bat adoptatzea. Ezta bikote gabe egin izana ere. Betidanik garbi izan duena bete besterik ez omen du egin: Isaac Gezalaga Urrestilla, Hondurasen jaioa, etxera ekarri.

Gezalagak lankide baten bitartez bideratu zuen prozesua. "Laneko batek bi ume ditu Hondurastik ekarriak. Hari galdetu, abokatuaren zenbakia hartu eta



Elizabet Gezalaga, Isaacekin.

Foru Aldundira joan nintzen, zer egin behar nuen jakitera".

Bete beharreko eginkizun guztiak laster batean egin bazituen ere —tartean, psikologoaren "galdera mordo" bati erantzun—, patxadaz joan zen prozesua. "Foru Aldundiko paperak eta halakoak segituan egin nituen baina gero hiru urte egon behar izan nuen haurra izan arte. Hondurasen ere proba batzuk pasatu behar izan nituen". Bitarte horretan bi bidaia egin zituen Gezalagak Hondurasera; lehenengoa, probak pasatzeko eta, bide batez, aurreneko umea ikusteko, eta bigarrenengan, Isaac ekartzera. "Bizitzako esperientziarik

txarrena izan zen. Hasierako lau egunak negar eta negar pasatu zituen. Normala zen, umeak urtebete zeramalako harrerako etxe batean, eta hara ohitua zegoen. Behin irribarrez hasi zenean, ordea, kito! Beti barrez. Ez nituen egun asko egin han".

Beste edozein amak bere seme-alaba bezalaxe maite du Isaac txikia amak: "Isaac ezin dut gehiago maite. Ahaztu egiten zait nigandik ez dela jai. Askotan diot nire igual-iguala dela. Neurea da ekarri dudana momentutik. Lehen gustura bizi nintzen, eta gauzak beste era batera ikusten ditudan momentu honetan, ezin gusturago bizi naiz". ◀

**LUBA**

- AHOLKULARITZA FISKALA,  
LABORALA, KONTABLEA  
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45

Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75  
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

**KIRURI**

**J A T E T X E A**

Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08

Faxa.: 943 15 03 62

**CENTERPOINT ACADEMY**

Ingeleseko klaseak haur, gazte eta helduentzat  
(goiz eta arratsalde)

- Cambridge, HEO, TOEFEL
- Enpresetarako ingelesa (goizez)
- Helduentzat maila guztiak
- Eskolako ingelesa

**ZATOZTE!!!**

Foru ibilbidea 7-1ezk  
**943 81 65 03**

# JOAN...



## Gurean ▶

### VIOLA EGETER

▶ Tai-chi irakaslea

## “Oso sakonak zarete”

**V**iola Egeter alemanak Tai-chi ikastaroa ematen du Zapo Txokon. Urte asko daramatza horretan eta azpeitiarrak “sakonak” garelako dio.

### Nolakoak gara azpeitiarrak?

Oso sakonak zarete. Mendiko herri bat da, eta oso tradizionalak izaten jarraitzen duzue. Errepresio handia jasandako herria da eta oso gogorrek zarete.

### Gustuko al duzu Azpeitia?

Nahiago ditut Zarautz edo Donostia. Han jendea irekiagoa da eta ez naiz hain arraro sentitzen. Baina Azpeitia bezalako herriek ere badute gauza onik. Hemen jendeak

ezagutu egiten zaitu eta harremana humanoagoa izaten da; jendeak ondo al zauden eta galdetzen dizu. ◀

## Eztabaida eta giro ona

Otsailaren 18an Gaztetxeak antolatuta, Eztabaida Eguna egin zuten. Urtarrilean hasi eta otsailera bitartean hitzaldi sorta izan zen Gaztetxean, eta egun horretan, landutako gaien inguruko hausnarketa egin zuten. Eztabaidaz aparte, festa girorako tartea ere hartuzuten. Argazkian, gazteak goizeko saioa bukatu ondoren egin zuten bazkarian.



## Adio ‘Otola’ soinujoleari

Bittor Gurrutxaga *Otola* azpeitiar trikitilaria hil zen otsailaren 2an. Bere ibilbidean Iturbidetarrak izan zituen pandero lagun. Argazkian, 2004. urtean egin zioten omenaldian.



## Kaldereroen omenaldia

Karnabalen aurretik, kaldereroek urtero egiten diote talderen edo norbanakoren bati omenalditxo. Aurretan Zine Klubari eta Julian Barrenetxea Abesbatzari. Argazkian, omenduak kaldereroen opariak jasotzen.

## Santagedak giro ederrean

Otsailaren hasieran izan zen Santa Ageda eguna, eta matxinbentarek auzoko festak ospatu zituzten. Festa Batzordekoen hitzetan, giro onean ospatu zituzten. Argazkian, ekitaldi bat.



**OTSAILAK 2** ▶ Igor Etxaniz *Kinttela*-k burtzikari profesional lana utzi egin duela jakinarazi zuen. **OTSAILAK 2** ▶ Udalak Soreasuko kultur gunea aurkeztu zuen. **OTSAILAK 16** ▶ Kiruri jatetxean PPkoek omenaldia egin zioten Azkoitiko PPko zinegotzi Pilar Eliasi. Bertan izan zen, besteak beste, Angel Acebes Espainiako PPko bigarrena. **OTSAILAK 22** ▶ Joxe Mari Iriondo kazetariak Iñaki Eizmendi *Basarri* errezildar bertsolariari buruzko liburua aurkeztu zuen: *Baserri I. Bat-batean*. “Jendearekin beharrezkoa zen tratua izaten bazekien”.





**MARTXOAK 6-13-20** ▶ Udalak antolatuta, *Emakumeak komunikabideetan* tailerra. **MARTXOAK 8** ▶ Goizean mobilizazioak eta 19:00etan kontzentrazioa plazan Martxoak 8 dela eta. **MARTXOAK 11** ▶ Bilgune Feministak eta Emakume Taldeak antolatuta, txotxa. **MARTXOAK 18** ▶ *Las mujeres de verdad tiene curvas* antzerkia Izarraitzen, Udalak antolatuta. **MARTXOAK 29** ▶ Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartekoek antolatuta, odol ateraldiak. **MARTXOAK 25** ▶ Azkoitia Azpeitia maratoi erdia, Xeyek antolatuta.



**PASAIKO SARRASKIA GOGOAN.**  
 Martxoaren 22an beteko dira 27 urte Pasaian Dionisio Aizpuru *Kurro* eta Pedro Mari Isart *Pelitxo* KAAko azpeitiar kideak hil zituztela. Urtero bezala, aurtan ere ekitaldiak antolatu dituzte.  
**MARTXOAK 25** ▶ Bazkaria ▶ Plazan ▶ Pasaiako Sarraskia Argitu Taldeak antolatuta

**AITOR AGIRREZABAL** ▶ Loiolatxo Elkarteko Festa Batzordeko kidea

# “Umeentzat **poniak eta zezenak** jarri ditugu aurtengorako”

**M**artxoaren 19a da San Jose eguna, eta orduan izaten dira Loiolako festak. Loiolako erromerrien moda pasatu zen baina, hala ere, festa giro ona izaten da sanjosetan. Aitor Agirrezabal loiolatarra da, eta auzoko festak antolatzeaz arduratzen da, beste hainbat gazterekin batera.

Aurtan asteburuan tokatuko da martxoaren 19a, eta aste bukaera horretan izango da festa nagusia. “Martxoaren 18an bosgarren aldiz mendi biathloia antolatuko dugu. Lasterketa 16:30ean hasiko da, eta hamar kilometroko ibilbidea izango dute egiteko parte hartzen dutenek”, dio Agirrezabal. Izen-ematea 6 euro izango da, eta lasterketa bukatu ondoren Loiolatxo Elkartearen merienda eta oroigarriak eman-goto dizkiete parte-hartzaileei.

San Jose egunean, aurtan berrikuntza bat egongo da: hain zuzen ere, poniak eta zezen txikiak eguerdiko hamabietan. “Asto karrera ikustera ume asko etortzen dira, eta aurretik haientzat zerbait jartzea pentsatu dugu, eta poniak eta zezenak izango dira, esan dute Festa Batzordeko kideak. Arratsaldean, berriz, herri kirolak izango dira.

Eta martxoaren 25ean, auzo afaria egingo dute. Ondo eta elkarrekin pasatzeko aukera, beraz. ◀

**MARTXOAK 18** ▶  
**V. Mendi Biathloia.**  
 ▶ 16:30ean.  
 ▶ Loiolan.  
 ▶ Loiolatxoko Festa Batzordeak antolatuta.



**Besterik ▶**

**MARTXOAZ GAZTETXEAN ▶**  
**Martxoak 8.**  
 ▶ *Euskal Herriko emakumeen eskubide gutunaren prozesua.*  
 ▶ Azpeitiko Bilgune Feministak eskainiko du.  
**Martxoak 10.**  
 ▶ Kontzertuak; Desperbicio, arazoak 11 eta Gatazka oi.  
**Martxoak 12.**  
 ▶ Bideo emanaldia.  
 ▶ 18:00etan.  
**Martxoak 15.**  
 ▶ Angel Mari Etxeberriak Picos de Europako diapositiba emanaldia eskainiko du.  
**Martxoak 17.**  
 ▶ Bertso saioa: Xabier Silveira, Amets Arzallus, Amaia Agirre, Haritz Etxeberria *Ministro* eta Jon Maia.  
 ▶ 22:30ean.





# karnabalak noiz HURRENA?

Urte batean otsail hasieran, bestean martxoan...; garai ezberdinean izaten dira karnabalak. Zergatik?

► Testuak: Ihintza Agirretxe ► Argazkia: Uztarria

**U**rtero aldatzen da karnabalen data. Urtea hasi bezain laster askok jotzen dute egutegira, inauteriak noiz izango diren begiratzeko. Aste Santua noiz den begiratu, eta bat baino gehiago hasten da kontuak ateratzen. Baina zergatik aldatzen dira egunak? Zein da festa horien dataren misterioa?

Karnabal egunak Aste Santuekin lotuta daude. Astearte karnabala Hausterre Egunaren aurreko eguna izaten da beti, eta Garizuma pasatuta Erramu Eguna etortzen da; Aste Santuaren hasiera, alegia. Aste Santua bukatu, berri, Bepizkunde Egunean egiten da. Baina zergatik aldatzen dira urtez urte data horiek guztiak?

► **EGUTEGI KONTUAK.** Judutarren egutegia ilargian oinarritzen da, baina hemengo ez. Hemen gaur egun Pazko izenez ezagutzen dena, judutarren festa Pesah zen garai batean eta haiek beti garai berean ospatzen zuten. Elizak, ohitura judutarrari jarraituz, martxoaren 20aren ondorengo ilargi beteari segitzen dion lehen igandea izatea erabaki

zuen Bepizkunde Igandea. Data horri zazpi aste kenduta –Aste Santua eta Garizumako sei asteak– igande karnabala ateratzen da.

Igande karnabala beti otsailaren 2a eta martxoaren 7a bitartean izaten da; bi egun horiek izaten ditu muga. Beraz, Bepizkunde Igandek ere bere bi muga dauka: martxoaren 22a eta apirilaren 25a, hain zuzen.

Horra ba karnabalak beti egun ezberdinean izatearen arrazoia. 2007an, otsailaren 18an izango da igande karnabala. Urtebete baino gutxiago falta da... ◀

## Datak

### DATOZEN URTEETAN ►

- 2007. Otsailaren 18an.
- 2008. Otsailaren 3an.
- 2009. Otsailaren 22an.
- 2010. Otsailaren 14an.
- 2011. Martxoaren 6an.
- 2012. Otsailaren 19an.
- 2013. Otsailaren 10ean.
- 2014. Martxoaren 2an.
- 2015. Otsailaren 15ean.
- 2016. Otsailaren 7an.
- 2017. Otsailaren 27an.
- 2018. Otsailaren 11n.
- 2019. Martxoaren 3an.





## LOIOLAKO FESTA: KIROLA ETA ERROMERIA

*Behin batian Loiolan, erromeria zan...* dio kanta zahar baten hasierak. Garai batean oso ezagunak izan ziren auzo horretako erromeriak, bai. Herri kirolak ere bai; horizen Loiolako festen xarma. Garai batean jende asko biltzen zen Loiolan herri kirolak ikusteko. Argazkian ikus daitekeenez, ordurako kotxe asko zegoen herrian. *Seiscientos*-ak zeuden modan; ez zuten txarrak irten...

► Testua: Ihintza Agirretxe ► Argazkia: Mertxe Egigurenek utzitakoa

## Efemerideak ▶ martxo



San Agustínpeko arkupea, kioskorik gabe. IHINTZA AGIRRETXE

# herriko istorioak ETA HISTORIA

Herriaren historian dentik pasatu da;  
hemen herriko istorioetako batzuk

▶ Testuak: 'Azpeitiko efemerideak' liburua (Imanol Elias-Uztarría)

### 1926-MARTXOAK 4 ▶

**Kioskoa.** Alkatetari ahalmena eman zioten San Agustingo arkuetan zen kioskoa kentzeko, bukatuta zegoelako Albara Aistarrani lan hori gauzatzeko eman zioten epea.

### 1876-MARTXOAK 9 ▶

**Gauzainak.** Momentuan gauzain lanean ari ziren langileak bidali eta, urte batzuk lehenago, 1973. urteko abuztuaren 13a arte, gauzainak izan zirenak berriro lehen-gauzain lanean jartzea erabaki zuten.

### 1896-MARTXOAK 11 ▶

**Laguntzak.** Kubako gerran zeudenei laguntzeko, 750 pezetako laguntza emanez diru laguntza zerrendari hasiera ematea erabaki zuten.

### 1956-MARTXOAK 11 ▶

**Apustua.** Erlora apustua jokatu zuten Gregorio Alzibar eta Inazio Iturgainek. Azken horrek irabazi zuen, 48 minutu eta 11 segundoko denborarekin. Alzibarrek 48 minutu eta 13 segundo behar izan zituen ibilbide bera egiteko.



Azokako postuak. UZTARRIA

### 1826-MARTXOAK 15 ▶

**Udaltzainak.** Udaltzainen eskareri erantzunez, bakoitzari galtzak, galtzerdiak eta oinetakoak ematea erabaki zuten, aginduz galtzak ospakizun bat izatean bakarrik jantzi beharko zituztela jakinarazi zen.

### 1846-MARTXOAK 18 ▶

**Azoka.** Emakume merkatari batek eginiko eskaera ontzat hartu eta herriko merkatarietara lehentasuna ematea erabaki zuten asteko azokan postuak izateko, kanpotar merkatarien aurrean. ◀

## Pertsonaia ▶

### 5 URTE GARCIA GABE.

2001. urteko martxoaren 31an Diego Garcia azkoitiar lasterkaria hil zen, entrenatzen ari zela bihotzekoak emanda, Loiolan. Azpeitian bizi zen. Bere azkeneko maratonia 2000ko urriaren 15ean korritu zuen, Amsterdamen, 39 urterekin.



## Datua ▶

# 100

### URTE JOXE ARTETXE JAIO ZELA.

1906ko martxoaren 12an Joxe Artetxe Aranburu jaio zen. Idazlea izan zen eta, gehienbat, gazteleraz idatzi zuen; euskaraz, *Egan* eta *Zeruko Argia* aldizkarietan idatzi zuen. Gipuzkoako Biblioteka Probintzialeko zuzendaria izan zen Artetxe.

## Argazkia ▶



### XEBAXTIAN LIZASO TXAPELDUN.

1986ko martxoaren 23an Donostian jokatu zen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala eta Xebastian Lizaso azpeitiarra nagusitu zen. Bertsozale Elkarteak antolatutako lehen txapelketa izan zen. Argazkiarekin, Lizaso txapelarekin.

Kontua da... ▶

## Urrestildarren aspaldiko ametsa



Imanol Elias  
Odriozola

**C**adizko Konstituzioari esker lortu zuen 1812an Urrestillak Azpeitiarekin zuen lotura haustea. Herri bezala sortu zen, denboraldi motzerako bazen ere. Bertako biztanleen independentzia nahia aurretik ere bazen, eta ez politika eta administrari dagokionez bakarrik, erlijio aldetik ere amets bera zuten.

Herriko aginduei uko eginik, 1594an, Eizmendiko San Joan ermitara egin zuten letania prozesio urrestildarrek, azpeitiarren deialdia alde batera utziz. Urteak geroago, errepikatu egin zen gertaera. Eizmendiko ermitara ez ezik, Elosiagako elizara prozesioa egitean urrestildarrek, Sagastiberria eta Plaza apaizak buru zituztela. Akusatzaileak adieraziko zuen bertara joan ziren azpeitiarren aldetik bultzadak jaso zituztela bi apaizek meza ospatzen zutenean, eta aldia gainean idazten ahalegindu zirela bertara joandako urrestildarren izenak.

Goizean gertatukoaren berri berehala zabaldu zen eta, alkatea buru zutela, jende armatua iritsi zen arratsaldean Urrestillara, bi apaizak atxilotzeko. Oraingoan neurri gogorragoak hartu nahi zituzten, eta bi apaizen ondasunak bereganatu zituzten. Ondoren, mando gainean loturik jarri bi apaizak eta lau alkabuzlarik inguratuz, apezpikutzako dorretxera eraman zituzten. Apaizen prokuradoreak ziotenez, Azpeitiko parrokiako apaizek guztia ikusi zuten, baina inolako laguntzarik ez zuten eskaini, ontzat harturik alkateek egiten zutena. Auzia sortuko zen gero, urrestildarrek zigorra eskatuko zuten agintarientzat elizaren gauzetan muturra sartzeagatik eta azpeitiarrak, batez ere, neurriak hartzea eskatuko zuten. Parrokiko apaizei eta agintariei gertaeren berri eskatuz, urrestildarrei ere eskari bera egingo zieten. Urrestildarrek bitartean mezarik gabe geldituko ziren.

**Garai bateko Azpeitia** ▶ Juan Luis Larrañagak kontatua

# futbola, ERROMERIA...

**Erromeria, futbola; festa eta kirola...**

**Juan Luis Larrañagak ederki uztartu ditu;**

**Azpeitia eta Azkoitia uztartu dituen bezala**

▶ Testua: Ihintza Agirretxe

**A**zkoitiko kalean jaio zen Juan Luis Larrañaga, baina ia 30 urte daramatza Azpeitian bizitzen. "Ezkundu nintzenezan etorri nintzen Azpeitira bizitzera", dio. Gaur egun, Aitonena lehendakaria da, eta daukan taldearekin lanean ari zela tartetxoa egin zuen gaztetako kontuak gogoratu eta kontatzeko.

Azpeitian asko ibilitakoa da Larrañaga. "Andregaia ere hemen goa topatu nuen eta hemen ibili beharko!", dio, erdi barrez. Erromeritik erromerira ibiltzea gustuko zuen Larrañagak. "Gu ez ginen urrutira joaten, Azpeitia, Azkoitia eta Zestoia inguruan ibiltzen

ginen. Hori bai, sanpedroetan Urolako trena hartu eta Zumaiara joaten ginen. Hori izaten zen gure irteera bakarretakoa". Baina ezkutuan ibili beharreko uneak ere izan ziren: "Hemen dantzan egitea galarazita zegoenean gu Zestoara joaten ginen, han libre izaten zelako. Hura, gainera, ezkutuan gelditzen zen".

**“Hemen dantza egitea galarazita zegoenean, gu Zestoara joaten ginen, han libre izaten zelako”**

**JUAN LUIS LARRAÑAGA** ▶ erretiratua



**Garai bateko futbolari batzuk, partida jokatzen hasi aurretik.**




▶ **FUTBOLEAN.** Baina Larrañaga erromeri zalea izateaz gain, futbolaria ere bazen. Soldadutzara joan aurretik Anaitasuna taldean joatzen zuen, baina bueltan... orduan komeriak!

18 hilabete egin zituen soldadutzan, Melillan (Espainia). "Tokatu baino sei hilabete gehiago egon nintzen soldadutzan", gogoratzen du. "Lau azkoitiar geunden han eta lagun artean ondo pasatu genuen. Pixka bat luzea egin zitzaidan, baina bestelakoan, ongi moldatu ginen", dio. Hizkuntzarekin ere ez omen zuen inongo arazorik izan. "Guk nahi genuena ederki adierazten genuen han...".

Soldadutzatik etorri eta aurreneko futbol partida oso gogoan du, jendeak nongoa zen galdeztzen ziolako. "Bueltatu nintzenezan, Anaitasunak segituan egin zidan fitxa, baina ordurako Lagun Onakekoekin ere hitz eginda nongoen eta partida hura egundokoa izan zen. Batek esaten zidan batekoa nintzela, besteak beste...". ◀

## Hitz gezidunak ▶


	Langile ▼	Afrikako estatua ▼	Baztango herria ▼	Nazareteko ▼	Margo
	Etreak, esaterako	Nafarroako herria	Suari dario	Musika ikurrak	
	▶	▼	▼	▼	
	* DEITURA				
	Zerbait				
Apaizak ▼	Bizkaieraz, enara ▼		Arla ▶		
Deiturak	* IZENA		Berriketa		
▶	▼		▼	Garai ▶	
				Ene	
Pirinioetako gailurra ▶			Zital ▶	▼	
Uda			Konforme		
▶			Izen arabiarra ▶	▼	Infusio mota ▶
			Bokala		R hiru aldiz
Ukatzeko ▶		Detektagailua ▶	▼		▼
Altxa		Kontso. errepikatua			
▶		▼	Ez zuzena ▶		
			Kontsonantea		
Okotza ▶		▼			Röntgen ▶
					lodoa ▶

\* Azpeitiar mendizalea

## Hitz gurutzatuak ▶


**EZKER ESQUIN:** 1. Gure eskualdeko ibaia. 2. Alderdi karlista. Bizkaiko mendia, hegazkin istripu batek famatu zuena. 3. Gipuzkoako herria, Goierri. Lehenengo nazioartekoa. 4. Ipar Ameriketako estatua. Errepikatuz, txori mota. 5. Larru. Sugetzarrak. 6. Kontsonante bustia. Nazio, herri. 7. Garra. Zazpi eguneko denbora tarte. 8. Naizen hau, nerau. Istua, txistua. 9. Poltsikoan sosak ditugunean eskertu egiten dugu txori honek kantari hastea.

**GOITIK BEHERA:** 1. Huts, errakuntza. 2. Hatz apaingarri, uztai txiki. 3. Izana, edukia. Mikelats du izena erakunde honek Azpeitian duen zentroak. 4. Palestinako hiria. Bokal errepikatua. 5. Oxigenoaren ikur kimikoa. Anno Domine. Baldintzetan. Kontsonantea. 6. Lotan. Kantatu. 7. Gipuzkoako udalerría, kostaldetik hurbil. Baratzea. 8. Har luzea. 9. Lekua, aurkientza.




# Soluzioak ▶

## HITZ GEZIDUNAK



## HITZ GURUTZATUA



## UZTARRIAREN OTSAILEKO ARGAZKI LEHIAKETA



Maria Jesus Elustondo Uztarriako bazkidea izan da argazki lehiaketako 70. irabazlea. **Bigara** ileapaindegiko zerbitzua irabazi du sari gisa. Argazkian, Maria Jesus –erdian– eta Bigarako ileapaintzaileak .

# Zer da hau? ▶



## ERANTZUTEKO EPEA ▶

Martxoak 27 (astelehena)

## NORA BIDALI ▶

Julian Elorza Hiribidea 4, behea

## ZER DEN ADIERAZI ▶

## ZURE IZENA / TELEFONOA ▶

## IRABAZLEARI SARIA ▶

Enparan Bideoetako 50 euroko txartela

## PARTE HARTZEKO BALDINTZA ▶

Uztarrian bazkide izan behar da

Irudiekin, Iraurgi bailaren zerbitzura

## KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak egiten dira



81 53 35

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

## URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea

20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

arte eta diseinu ikastegia



● Dibujo eta eskulanak (haurrak) 17:30/19:00

● Pintura 17:30/19:00

● Talla 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3  
669 414 025 - 619 586 652  
matrikula urte guztian zabalik

## Zaindu ▶ Barrukiak

Julian  
Bereziartua



**B**arrukien artean lurreko, ibai-ko eta itsasoko abereen organoak sartzen dira; ez dute fama ona, baina ondo prestatuta gehienei gustatzen zaie.

Jatetxeko nagusi eta sukaldariari galdetu ondoren, 'escarlata' deitzen zitzaiola esan zidan: "Txahalaren mihia da, baina horrela azalduko bagenu, inork ez luke eskatuko". Eskertu nion benetan azalpena, janari hark goi mailako aipamenak merezi zuen eta.

Eskura dauzkagu hogeitatu bat elikagai: gibela, giltzurrunak, mihia, tripakiak, garunak... Gordinik ez daukate itxura onik, baina bere zapoak eta elikatze duten balioak denok konbentzitzen ditu.

Tamalgarria da tripotxak zeharo desagertuta egotea. Konformatu behar gauzak hala direlako, baina ez nago ados.

Barrukiak, orokorrean, oso aberatsak dira; osasun kontrola eginez gero, onak edo oso onak dira. Dena dela, osasun arazoak dituzten pertsonak, kontuz kontsumitu behar dituzte. Erromatarrek ahogozagarritzat zituzten. Turkoentzat txerriaren gibela ohiko jakia da. Japoniarrak *yakitori* aperitiboa hartzen dute. Ez dezagun ahaztu Granadako Sacromonte etxealdean kontsumitzen duten garunez egindako tortila.

Nire aldetik, lor dezakegun elikagaririk osoena gibela dela defenditzen dut.

## ANGEL ARANDA ▶ taxi gidaria

### Azkar edo makal?

Normal, arauak errespetatuz.

### Urtaro bat?

Uda.

### Bidaiatzeko, trenak, kotxea?...

Guztiak dute bere alde ona eta bere alde txarra.

### Eguraldi ona edo txarra?

Ona.

### Herrialde bat?

Ez dakit ba, ez daukat justu bat gustukoa.

### Bidaia bat?

Cadizera (Espainia) joango nintzateke gustura.

### Zer nahiago duzu: bakarrik edo lagunekin bidaiatzea?

Beti ere familiarekin, lagunekin edo bezeroekin bidaiatzea hobea da.

### Zein da gidari on baten sekretua?

Ez dauka sekreturik.



▶ Testua eta argazkia: Ihintza Agirretxe

## Abizena ▶ Zubiaurre

### Armarria.

Karratu horian gaztelu itxurako zubi bat eta aurrean bi otso zaindari. Armarriaren goiko partean hiru hosto berde ditu.



### Banaketa semantikoa.

▶ Zubi + aurre hitzek osatzen dute abizen hori.

### Esanahia.

Zubiaren aurreko aldean esan nahi du.

### Abizenaren kokapena.

- ▶ Zestoa.
- ▶ Azkoitia.
- ▶ Ormaiztegi.
- ▶ Lizartza.
- ▶ Bergara.
- ▶ Ezkio.
- ▶ Itxaso.
- ▶ Villabona.
- ▶ Ibarra.
- ▶ Markina.

### Abizenaren hedapena.

- ▶ Azkoitia (1662).
- ▶ Ormaiztegi (1554).
- ▶ Santiago (Galizia; 1655, 1662 eta 1665).
- ▶ Zarautz (1692).
- ▶ Itxaso (1704).

## Esandakoa ▶

“Diru asko mugitzen den mundua da, dirudun jendea sartzen ari da eta atearik diruarekin itxi dizkirate”

**IGOR ETXANIZ 'KINTELA' ▶**  
burtzikari profesional ohia

“Inoiz ez dut pentsatu lesio honengatik futbola utzi beharko nuenik”

**MIKEL ARANBURU ▶**  
futbolaria

## Zenbat ▶

# 5.785

### ETXE HERRIAN.

Herria handituz doa, eta gaur egun 5.785 etxebizitza daude Azpeitian. Oraindik ere gehiago egiteko asmoa dute.

**HORMIGONES LAZKANO**  
HORMIGOIAK

**PILDAIN Inmobiliaria**  
www.pildain.com  
Harzubia 6, behea  
Tl. 943812167 - Fax: 943150774  
e-mail: inmobiliaria@pildain.com

Lore Sortak  
Koroiak  
Lore Apaingarriak  
Etxeetarako zerbitzua dugu  
Tel. 943 81 51 87  
Loiolabide, 25



Gertuko pasadizoa ▶

# zinema

# ZALETASUNA

‘Azpeitiko Zine Kluba 25 urte fotograma artean’ liburutik hartua ▶ Argitaratzailea: Azpeitiko Udala ▶ 2002



**KAPITULUA ▶ Eskerrik asko, Azpeitiko Zine Kluba –Juan Carlos Arellanok kontatua– (41. orrialdea)**

Txikitan telebista lehen aldiz etxera sartu zenean, izugarrizko aldaketa gertatu zen. Alde batetik, betiko giro zaratatsua –zortzi anai-arrebak egonezinean sortuak– eta beti etxetik kanpo egoteak sortzen zuena. Egoerak ez zuten zerikusirik han ekarritako kaja harekin. Gauean afaltzen denok isilik *telediarioa* ikusten eta zenbait jende arraro hizketan eta kantuan. Zerbait ikusi eta amari begiratzea nahikoa zen esplikazioak entzuteko. Horrela komentario bat eta besterekin pelikulak ikustera bultzatu ninduen. Zelaitxora edo Soreasura,

berdinzen, txikien *infantil* programetara joateak 3 pta balio zuen eta liluratuta ateratzen ginen. Gero pelikula kontatzen hastearekin batera berriro oroitzapenak berpizten ziren.

Gaztetan Floreagara ere joaten ginen, baita helduentzat ziren filmeetan sartzeko aleginak egin ere. Batzuetan zorte ona, besteetan ez, –atean nor zegoen izaten zen aldea– sarrertartela gehienetan lortzen genuen, baina sartztea beste kontu bat zen. Barruan beste kontu bat zen; atzean jartzen ginen hobeto ikusiko ote genuen edo, izkutuan egoteko pareja artean, horrela gutxiago nabarmentzen ginelako. Baina barruan Pontxioren linternapean egoteko arriskua izaten genuen. Horrela astebukae-

raro, garaian garaiko modak, beldurrezkoak, berdeak), parre egitekoak, oestekoak...

Honela, orain dela 25 urte pelikula ezberdinak botatzen hasi ziren. Ez nekien nork eta nola antolatzen zen, baina tarteka joaten nintzen. Oraindik 18 urte bete gabe eta zenbait filme helduentzako ziren, dena den saiatzen nintzen, sarrerako oneritziarekin noski. Horrela nire zine zaletasuna hedatzen eta sendotzen joan zen. Taldeko Mari Karmenekin nahiko erlazio nuen eta beronek bultzatu ninduen taldera sartzera... eta gaur arte. Talde barruan beste dinamika berria egituratzen joan zen, ez nuen ezer espero eta ondorenak ere bestelakoak izan dira. Lehenik, *Mateo Txistu* filmaren prozesu osoan sartu eta beronen zurrumbilorian nengoela jabetu. Guztiz berriak ziren lanak egin eta jorratearekin batera, asko ikasi izan dut, denbora guztian esponja bat bezala dena hartu eta hartu, seguruenik maisu onak direlako inguruan izan ditudan lankide guztiak. Lehen filmea aurkeztea eskatu zidatenean ere, konfidantza osoa eman zidaten eta hor agertu nintzen jendeaurrean, apunteak eta ia buruz ikasitako data, pertsonaje, zenbait pasadizo eta abarrez jabetu eta aurkezpena egin nuen. Ez naiz gogoratzen zer esan nuen, nola esan nuen eta horrelakorik. ◀

**Amenabar**  
D E N D A

gortinak, ohazalak,  
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97



Euskal Herria, 34  
20730 AZPEITIA  
Tel.: 943 15 16 40

**Ekain**  
Larrialdiak:  
943 15 16 40  
ALBAITARI KLINIKAK



ERLOJU  
KONPONKETAK  
Arana, 5  
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12



*Otamendi*  
*Betsi Denda*

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49




**domusa**



**gizarte ekintza**



**CAJA LABORAL**  
**EUSKADIKO KUTXA**



CONSTRUCCIONES  
**ANTZIBAR**  
ERAIKUNTZAK

## Telefono zenbakiak ▶

### TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

### OSASUNA

Anbulategia	81 51 00
Anbul.-larrialdiak	81 12 01
Eguneko zentroa	15 71 94
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

### KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara (Jendartea)	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemallea)	943 15 09 94

### LARRIALDIAK

# 112

Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemai.)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

### ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

Habea	15 72 00 (138)	Uztarrria Kultur Koor.	15 03 58
EA	81 00 11	Kontseilua	943 59 12 00
PSE-EE	15 72 00		
PP	15 72 00		

### IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

### SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

### KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loioloako Liburutegia	81 65 08

### BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbia.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	665 72 39 79 / 943 08 06 88

## Farmaziak gauzez ▶ martxo

### 3-7-22

Jacome (Azpeitia).  
943 08 02 58

### 4-5-8-23

Aranburu (Azpeitia).  
943 81 13 50

### 9-24

Beristain (Azpeitia).  
943 81 19 49

### 1-10-20-25-26

Alberdi (Azpeitia).  
943 81 59 74

### 2-6-11-12-21

Garcia (Azpeitia).  
943 81 12 74

### 17-18-27-28

Gisasola (Azkoitia).  
943 85 12 35

### 15-16-17-??

Ruiz (Azkoitia).  
943 85 19 66



## INGURUKO AUZO ETA HERRIETAKO ZERBITZUA.

Urtariletik martxan da Beizama, Urrestilla eta Nuarberako autobus zerbitzua. Eskola orduetako bidaiak doan izango dituzte umeez, eta gainerantzekoek euro bat ordaindu beharko dute. Oporretan eta lan egunetan ordutegi ezberdina egongo da.

## Garraioa ▶ (autobusen ordutegia: [www.uztarria.com/azpeitia/autobusak](http://www.uztarria.com/azpeitia/autobusak))

### ALDALUR

85 27 18

### EUSKO TREN

902 54 32 10

### GUIPUZCOANA

85 11 59

### PESA

21 26 99

### PIPER ELK.

85 25 87

### TAXIAK

81 13 07

## Ateak zabalik ▶

### UDALETXEA

▶ Asteguna:	09:00-13:30
▶ Larunbata:	09:00-13:00

### UDALTZAINGOIA

▶ Egun osoz irekita egoten da

### ANBULATEGIA

▶ Egun osoz irekita egoten da

### IGERILEKUA

▶ Astelehena:	14:00-21:00
▶ Beste astegunak:	07:00-21:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Igandea eta jai egunak:	09:00-13:00
▶ Kanpoko igerilekua:	Ekaina arte itxita

### KIROLDEGIA

▶ Astegunak:	10:00-13:00, 15:00-21:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Igande eta jaiegunak:	itxita

### UDAL LIBURUTEGIA

▶ Astegunak:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Udan (abuztuanez), Gabonetan:	09:00-13:00

### ZAPO TXOKO

▶ Asteartea-ostirala:	17:00-20:30
▶ Larunbata:	16:00-20:30

SERGIO ELIEBER PEREZ ▶ venezuelarra

# Zailena temperatura hotzera ohitzea egin zait”

▶ Testuak eta argazkiak: Ihintza Agirretxe



Sergioaren aita Hector Perez —oporretan da Azpeitian— eta Sergio Elieber Perez bera, gozoki dendan.

## NOLA ESATEN DA... ▶

**Kaixo.** *Hola.*  
**Zer moduz?** *¿Qué tal?*  
**Laguna.** *Compayo / compadre.*  
**Kafe bat aterako,**

**mesedez.** *Un guayquito, por favor.*  
**Zenbat da?** *¿Cuanto es?*  
**Gero arte.** *Hasta luego.*  
**Agur.** *Adios.*

**U**rtebete inguru darama Sergio Elieber Perezek Azpeitian. Orain urtebete Ciudad de Bolívarren (Venezuela) zuen dena utzi eta Azpeitira etortzeko apustua egin zuen. Hemen sukaldari laguntzaile ibiltzen da, eta arrebarekin duen gozoki dendan ere egoten da tarte-ka lanean.

## Zer moduzkoa izan da azken urte hau?

Ondo joan da. Azpeitian jendea itxiagoa eta mesfidatiagoa da, eta hori dela eta, jendea ezagutzea zailagoa da. Hala ere, zailena hemengo temperatura hotzera ohitzea egin zait.

## Zer dela-eta etorri zinen hona?

Nire arreba hemen bizi da, eta hark gonbidatu egin ninduen eta horrelaxe etorri nintzen.

## Azpeitian bizitzen gelditzeko asmoa al duzu?

Ez. Nire herrialdetik irteten dudan lehen aldia da oraingoa, eta ez dut asmorik leku jakin batean denbora askoan gelditzeko. Mundua ezagutzea da nire asmoa, inon finko gelditu gabe.

## Euskaraz ikasten ari zara. Garrantzitsua iruditzen al zaizu?

Nire ustez, euskaraz ikastea baino garrantzitsuagoa da hemengo kulturarekiko errespetua erakustea. Eta errespetu hori erakusteko bidea, euskara ikasten ari zarela erakusten dela uste dut. Urtebete daramat euskaltegian. Nik uste dut norberak bere buruarekin horrelako erroka bat izatea oso dibertigarria dela.

## Oso ezberdina al da hemengo eta hango bizitza?

Bai. Han askoz lasaiago bizi da jendea. Azpeitian, berriz, zapatu eta jaietan ere lana egiten da, eta egunero ere nahi duzun arte egin dezakezu lan. Hemen gauzak, eskatzerako nahi izaten dituzte eta, azken batean, lan gehiago egin behar da. ◀

## HANGO JENDEA.

Hango jendea nolakoa den galdetu eta ez du dudarik: “Sueltoagoa da”. “Hemen jendea parranderoa da eta han *runberoa*. Guri asko gustatzen zaigu dantza egitea; Venezuelan dantzan bizi gara”, dio. Hemen, berriz, “arraro” begiratzan diote dantzan hasten denean.



## Datuak


40 langilez gorako 19 enpresa daude Azpeitian eta 13k dute weba. Haien datuak:

### Defektuzko hizkuntza.

- ▶ Euskara: batek dauka.
- ▶ Gaztelera: bostek.
- ▶ Ingelera: batek.
- ▶ Hizkuntzak aukeran: seik.

### Hizkuntzak (eduki guztia).

- ▶ Euskara: hirurek dute.
- ▶ Gaztelera: 13k.
- ▶ Ingelera: 10ek.
- ▶ Frantsesa: seik.
- ▶ Portugesa: bostek.
- ▶ Besterik: lauk.



# sarean

# GALDUTA

**Herriko enpresa handien webguneetan euskarak duen presentziaren inguruko azterketa egin du Uztarriak; Azpeitiko sarean noraezean dabil euskara**

▶ Testuak: Ihintza Agirretxe ▶ Marrazkia: Iñaki Martinez

**G**aur egun, gero eta enpresa gehiagok dute euren web orria. Azpeitikoetan behintzat, euskarak ez du presentzia handirik. Uztarriak, 40 langiletik gora dituzten herriko enpresen webguneak aztertu ditu. Halako 19 enpresa daude, eta haietatik 13k dute webgunea –enpresa talde handien kasuan, Azpeitiko egoitzak webgunea badu, hori aztertu dugu, ez enpresa taldeak daukana–. Emaitei begira, ezin daiteke ondorio onik atera; izan ere, webgune gehienek euskara baztertuta dute.

Azterketa egiteko, bilatzailea euskaraz jarri eta Azpeitiko egoitzetako webguneak aztertu ditugu. 13 enpresa horietatik seik hasieratik hizkuntza hautatzeko aukera ematen dute, eta sei horien artean hiruk baino ez dute informazioa euskaraz jasotzeko aukera. Webguneetan aukeran dauden beste hizkuntzak gaztelera, ingelera, frantsesa, alemana, portugesa eta txinera dira.

Beste zazpi enpresetan lehen orria jada enpresak hautatutako hizkuntza batean agertzen da; lehendabiziko orri hori gazteleraz bostek dute, batek euskaraz du eta beste batek ingelera. Beraz, webgune horien hizkuntza kontuan hartuta, ingeleraren presentzia bera du euskarak.

▶ **INFORMAZIOA BERA.** Informazioa euskaraz topa daitekeen enpresen webguneen artean, bada alderik. Batzutan hizkuntzak zerrendatuta daude eta euskara azkena da, besteetan hizkuntza denak parez pare daude.

Euskaraz informazioa ematen dutenek, dena daukate euskaraz; gaztelera, ingelesez edo frantsez jaso daitekeen informazio bera jaso daiteke euskaraz.

**Bota lasai** ▶ ([www.uztarria.com/euskara](http://www.uztarria.com/euskara))

## Euskaltel euskaraz orain

Orain dela hilabete batzuk [uztarria.com](http://uztarria.com)-eko *Euskara* atalean Euskalteli buruzko kritikarik izan zen, Azpeitian karreretan ohar-kartelak gaztele-raz jarri zituelako. Euskaltel orain beste kanpaina bat egiten ari da herrian, eta guk ikusitako karreretan behintzat, euskaraz ipini ditu kartelak.

▶ Uztarria

## Kirol guneko hizkuntz irizpideez

Azpeitiko kiroldegian halako batean ohar arruntak euskaraz baino ez zituzten jarri (noiz irekita, noiz itxita...), eta oso ondo iruditzen zait horrela egitea. Orain, hantxe bertan, kirol guneko zera berrietan, beste ohar arrunt batzuk jarri dituzte (ezin dela erre...), euskaraz ez ezik, gaztelez ere jarri dituzte. Azken batean, zein da Azpeitiko

kirol gune horretako hizkuntz irizpidea?

▶ Enekoitz Esnaola

## Loyola?

ETB2an *Vaya semana* programa ikusten ari nintzen, eta Golden Apple musika taldeko laukotea zegoen gonbidatuta. Saioko aurkezleak bukaeran bakoitzari kamiseta bana oparitu zion. Uste dut kamiseta bakoitza norberaren izenare-

kin-edo zegoela: Edu... Eta batean, Loyola jartzen zuen. Ikusten da zer *txip* duten ETB2koek, euskal izenak-eta erdal grafian jartzen dituztelako. Txillardegiri leitu nion behin: "ETB2 erdaldunak euskal mundura erakartzeko ispi-lu gisa sortu zen, baina egia kontrakoa da: ETB2 euskaldunak espainolizatzeko tresna da". Adibidez, euskal izenak-eta erdal grafian jarrita.

▶ Miren

**ARKAITZ SEGUROLA** ▶ [www.sarralle.com](http://www.sarralle.com)-en arduraduna

## "Euskara izatea identitate kontua da"

**N**abigatzailea euskaraz jarri eta lehen orrialdea euskaraz irekitzen denen artean dago Sarralle enpresako webgunea: [www.sarralle.com](http://www.sarralle.com). Webgune horren arduraduna Arkaitz Seguroa azpeitiarra da, eta euskarari garrantzia ematen diotela esan du, "identitatea ematen duelako".

### Noiztik duzue web orria?

Nik uste orain zortzi bat urtetik dugula martxan webgunea, eta, egia esan, nahiko zaharkituta dugu. Orain berria egiten ari gara, eta martxoaren hasiera alderako berria martxan izango dugula espero dugu.

### Bost hizkuntza dituzue aukeran, eta horietako bat euskara da. Zein da hizkuntza horiek aukeran jartzeko arrazoia?

Enpresetan erabaki hori hartzeko irizpide nagusia kasu gehinetan bezeroa izaten da, eta Sarralle ez da salbuespena. Gure web orrian euskara izatea, ordea, ez da bezeroei begira egindako zerbait. Eta euskara aukeran izatea identitate kontua da, bezeroek ez dutelako eskatzen hori. Sarralle lan egiten dugun gehiengo euskal-

dunak gara eta geure artean euskaraz hitz egiten da normalean. Beraz, webgunean informazioak euskaraz ere egon behar duela uste dugu, eta horrelaxe daukagu.

### Web orri berria ere hizkuntza beraietan egongo al da?

Hasiera batean, martxan jarri bezain pronto, ziurrenik gaztelez baino ez da ikusiko, baina epe motzean euskaraz, ingelez eta frantsesez ere izango da webgunea bisitatzeko aukera; alemana kendu egingo dugu. Hori, batez ere, bezeroei begira egiten da. Izan ere, hasieran euskara soilik jarri gero, kanpoko bezeroek ez dute ulertzen.

### Euskaraz jasotzen den informazioa beste hizkuntzetan jasotzen den bera al da?

Bai, gu hizkuntza denetan informazio bera ematen saiatzen gara. Hasiera batean zaila da hori lortzea, baina oraingo web orriarekin lortu dugu eta berria martxan jartzen dugunean ere hori izango dugu erronka; epe motzean lortu nahi dugun helburua da, hain zuzen ere. ◀



## Eskolak euskalduntzeko kanpaina

Otsailaren bukaeran jarri zen martxan *Eskolak Euskaldunduz* kanpaina eta maiatza bukaera arte iraungo du (argazkian, kartela), Euskal Herriko eragileek bultzatuta. Azpeitian, hain zuzen, martxoaren 4an egingo dute aurkezpen ofiziala; 12:00etan, Sindikatu Zaharrean. Kanpaina horrekin euskal herritar guztiak maila guztietan, eta bereziki derrigorrezko hezkuntzan, euskaraz ikasteko duten eskubidea aldarrikatu nahi dute. Baita herritar orok euskara ikasteko duten eskubidea ere. Euskararen ofizialtasuna aitortu eta gauzatea, eta "orain arte euskalduntzea bermatzen ez duten hizkuntza ereduak aldatzea" eskatzen dute.

Azpeitian ekimenak egingo dituzte. Besteak beste, sinadurak biltzeko lekuak jarriko dituzte; karnabaletan ipini zuten.

## Euskararen gorabeherak ▶



### **GORA. Plaza Txikian, euskara txiki ez**

Plaza Txikian lanean ari dira; aurretik Enparan kalean ere aritu dira. Enparan kalean kartelak euskaraz izan dituzte, eta Plaza Txikikoak ere horrela daude.



### **BEHERA. Alfonso Gallardoko sarrera, 'itxita'**

Alfonso Gallardo enpresak kamioientzako sarrera jarri du; gazteleraz. Kamioiek sarrera horretatik sartu beharra dute, baina euskarari bidea itxi diote.



## Behatokia ▶ (euskararen eskubideen urraketak salatzen telefono zenbakia eta weba)

 **902 19 43 32**

[www.euskararentelefonoa.com](http://www.euskararentelefonoa.com)

## Eskubidea ▶

“ Eskubidea dugu Euskal Herrian sarbidea duen hedabide orok euskararen presentzia berma dezan ”

Euskal Herrian Euskararen 'Bideak' eskuliburutik hartua; Uztarrarian dago edonoren eskura

## Albisteak ▶

### **Patxi Altunaren ordezkoko zein?**


Urtarrilaren 20an hil zen Patxi Altuna azpeitiar euskaltzaina, eta Euskaltzaindiak apirilko batzarrean beteko du haren lekua. Badago proposamenik.

**Barruko proposamena.** Jose Antonio Arana Martija, Ana Toledo eta Henrike Knorr euskaltzainek Mikel Zalbide proposatu dute Altunak utzitako hutsartea betetzeko. Zalbide (Donostia, 1951) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean ari da lanean 1981tik, eta hasieratik da Euskara Zerbitzuko buru. 1983an izendatu zuten euskaltzain urgazle. Lexikologia eta hiztegi gintza arloan egin du lan batik bat.

**Kanpoko proposamena (balio ez duen arren).** Joxe Aranzabalek bere blogean proposamen bat bota du: Luistxo Fernandez eibartar kazetaria eta Interneten aditua (40 urte). "Euskaltzaindia odol berria sartu guran dabil, filologiatik harago lan egiten duen jendea, lagunduko diona egokitzten ezagueraren gizartera, papearen morrontza utzi eta sareari zukurik handiena aterako diona. Behar du errebultsibo bat; Luistxo Fernandez izan daiteke". ◀

# Lasao

• egurrezko altzaria



Euskal Herrian estimatzen den altzaria  
[www.lasao.com](http://www.lasao.com)

# U D A B E R R I A U D A R A

marka berriak  
modako markak,  
komplementoak  
eta oinetakoak

## Garztea



# Babesa

Xarjuandei auzuen gatzaxuden!

Urbitate, 9 • AZPEITIA • Tel. 943 15 13 69

## Informatika eta Telekomunikazio zerbitzuak



Telefonia Finkoa • Sakeleko telefonoak • Sareak  
Segurtasun Sistemak • Mantenu Kontratuak  
Softwarea • Ordenagailuak • Portatilak • TPVak

## Tinta Konpatibleak eta Berziklatuak



**Tinta eta  
Tonerretan  
Aurreztu %30  
edo gehiago**



Originaletan HP, EPSON, Canon, Brother, Lexmark, Samsung, ... **AUKERA IZUGARRIA**

Azkoitia Ibaiondo Kalea 943 85 36 60  
Azpeitia Pablo VI 19, beh 943 157 321  
Zarautz Kale Nagusia 1, Beh 943 13 33 85

# Sarea Informatika

## Enpresa eta Autonomoak

Motorola V3

**0 €**



## Partikularrak

Samsung E350

**0 €**



Telebista  
Digital  
Interaktibo

TELEFONIA FINKOA • INTERNET • TELEBI



**Euskalte**  
eko Banatzaile Ofizia